



MARIAN BEITIALARRANGOITIA eta MARKEL OLANO erabaki eskubideaz

Familien hurbilketarako bi ahots



- **Bularreko minbizia** Gaixotasunari aurre egiteko arrauna erabiltzen dute Kanadan
- **Zelai Nikolas** «Men egiten segitzen badugu hustu egingo da gure egitura guztia»
- **Euskara Amikuzen** Zabalik elkarte 40 urteko historiari lotuta
- **Kimuak** 109 film labur aztertu dituzte liburu batean
- **Larrun** Demokrazia parte-hartzailea
- **Donostia 2016** Krisia gaindituta, azken lanei heltzeko prest

Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI VITI



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruñia. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko uztailaren 27a, 2.425. zenbakia

ASTEKO GAIA

DONOSTIA 2016 Kultur hiriburua azken korapilo kapitalak. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 4

PERTSONAIA

ZELAI NIKOLAS: «Euskal Herria orain eraikitzen ez badugu, jan egingo gaituzte!». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK Asko gara beste irtenbiderik ez daukagulako eskean ari garenak. LANDER ARRETXE BEREZIARTUA / 15

ABREAST IN A BOAT Bizitzaren alde arraunean. JON ARTANO IZETA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

KONTUZ IBILI! JUNE FERNÁNDEZ / 20

AZERI DANTZA JOSE IGNAZIO ANSORENA / 22

LIDERRAK ANDONI MUJICA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Haurren eta helduen begietan. EDU ZELAIETA / 22

ERDIKO KAIERA

KIMUAK Film laburren erakuslehoari azterketa sakona. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 24

GARIKOITZ MENDIZABAL: «Txistuaren presentzia formatu desberdinetan landu behar dugu». MYRIAM GARZIA / 27

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 28

MUSIKA JOXI UBEDA / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

IHESI MAEZTU-MURIETA Tren zaharraren arrastorari segika. GORKA AZKARATE / 32

OSASUNA JABIER AGIRRE / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

PALESTINA Zer dira kolonia israeldarrak?

AXIER LOPEZ RODRIGUEZ / 39

MARIAN BEITIALARRANGOITIA-MARKEL OLANO Erabaki eskubidea helburu elkarlanerako prest, modua eta denborak adostu behar. XABIER LETONA / 40

AMIKUZEKO ZABALIK ELKARTEA Euskara biziberritzeko ahaleginetan. MIKEL ASURMENDI / 44

‘ARGIA EGUNA’ IRAILAREN 27AN USURBILEN

ARGIA ezagutzeko festa, oso gure erakoa.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL «Salba dezagun Nicole Delepin onkologoa».

PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Kultur hiriburuaren azken korapilo kapitalak

Zer egina badago, baina barne-estuasunak amaitu dira. Eta Donostia martxan dago 2016an, Poloniako Wroclawrekin batera, Europako Kultur Hiriburu izateko. Itxaropentsu agertu da Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatea. Berarekin izandako solasaldi luze batean aletu ditugu egitasmoari egiteko geratzen zaizkion azken etxeko lanak.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

APIRILA DA HILABETE KRUDELENA edo, poetak irakurri ordeztu prentsan Donostia 2016ri buruz zer argitaratu den leituz gero, apirila izan da hilabete zalapartatsuenaren. Europako Kultur Hiriburuaren proiektuak astindu gogorra hartu zuen hil horren bigarren egunean, ordura arte zuzendari orokor izandako Itziar Nogerasek dimititzea erabaki zuenean. Domino fitxak bezala erori ziren aste berean Guadalupe Echevarría zuzendari kulturala eta Itziar Elizondo komunikazio arduraduna. Eta bazirudien, edo hala ulertarazi zuten zenbait sektorek, iceberg horren kontra hondoratuko zela proiektu osoa erremediorik gabe.

Gauzak asko aldatu dira: zuzendariaren dimisioari buruz Juan Karlos Izagirrek aste hartan egindako adierazpenek bazuten zapo mingots bat, erabakiarekin bat ez zegoelako segur aski. Hiru hilabete geroago, Gipuzkoako hiriburuko udaletxean gaiaz galdetzen zaionean, ez zaizkio trago txarraren arrastoak antzematen, behin baino gehiagotan Nogerasen lana goraiatu du. Elkarrizketa baino astebete lehenago pasa dira Donostiatik Kultur Hiriburuaren Jarraipen eta Aholkularitza Batzordeko kide Steve Green eta Ulrich Fuchs eta Gloria Lorenzo Europako Batzordeko ordezkaria. Epaia: bide onean doala proiektua.

Lasaitua hartu al du Udalak adierazpen horren ondoren? Izagirrek azken bisitaren garrantzia erlatibizatu du: lehenago gaiaz idatzi dituzten txostenak ere ez zirela oso diferentziak dio, dokumentu horiek zenbait hedabideri filtratu zaizkienean egindako interpretazioek “liskar politikoa” elikatu dutela, besterik ez.

“Zein izan da azken bisitaren nobedadea? Prentsurrekoa egin dutela. Eta hor azaldu da benetan zer perspektiba duten Bruselatik: mito asko bertan behera geratu dira”.

Krisia gaindituta dago bere ustez eta proiektua martxan. Dena den, ez du ukatzen egiteko asko dagoenik. 2016. urtea gerturatzeko ari da eta dena prest egon dadin etxeko lanak zein diren galdetuta, bost zereginetan jarri du letra larria.

Lan eskaintza: zuzendari bila

Aste kritikoa pasata, behin-behineko zuzendaritza taldea izendatu zuen Donostia 2016ko Fundazioaren Patronatuak (Eusko Jaurleri-

tzak, Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Espainiako Kultura Ministerioak osatzen dute organo hori). Erreakzio azkarrari esker, egonkortasun apur bat lortu dute 2016ko bulegoan lanean segitzeko. Xabi Payak (programa kulturala), Enara Garciak (parte-hartzea eta antolakuntza) eta Garbiñe Muñoak (finantza arloa) gidatu dute egitasmoa geroztik, eta arrakastaz gainditu dituzte bidean zeuden zenbait erronka, 2014ko Olatu Talkaren antolakuntza eta Hiriburu Kulturalaren egoitza berria modu ofiziosan inauguratzeko ekitaldia, besteak beste.

Bitartean, zuzendari orokorra bilatzeko prozesua ez da gelditu. “Kudeatzaile profila” xerkatzen dutela dio alkateak. Kanpora begira Paya bezalako komunikatzaile on bat edukita, Nogerasen utzitako lekua hartuko duen pertsonaren betebeharra, fokupekoak programazioaren arduradunari lagata, barne-aferetakoa

“Makroproiektu baten usaina izan dezake honek, baina balio dezake bestelako baloreak lantzeko ere”

JUAN KARLOS IZAGIRRE,
DONOSTIAKO ALKATEA



Ekainaren 28an egindako Artejiraren bidez inauguratu zen modu estraofizialean Donostia 2016ren bulego berria Donostiako suhiltzaileen eraikin zaharrean. Festak balio izan zuen proiektuak aurrera jarraitzen duela baieztatzeko ere.

izango ote den jakin nahi izan dugu. Izagirre-
ren ustez publikoarekin ere aritu beharko du,
atzerriko eragileei eta babesle posibleei Donos-
tiako egitasmoa ezagutarazten, beste betebeh-
ar batzuen artean. “Baina proiektu kulturala oso
aurreratuta egongo da bera etortzen denerako,
eta hori Xabi Payaren esku dago orain”.

Uztailean iragarri da prentsan hautaketa
prozesuaren hasiera eta batzorde batek era-
bakiko du aurkezten diren pertsonen artean
nork dauzkan ezaugarri egokienak Hiriburu
Kulturalaren premietarako. Deialdian garran-
tzi berezia eman zaio 2016ak defendatzen
dituen balioei eta programa garatzen den

lurraldearen “errealitate soziala eta kulturala”
ondo ezagutzeari. Aurkeztu direnen artean
lehen orraza pasata, geratzen direnek deia
jasoko dute elkarrikketa pertsonala egiteko
abuztuaren 23a baino lehen. Hiru lagunek
izango dute azken hitza: Izagirrek berak,
Irlandako National Sculpture Factoryko
zuzendari Mary McCarthyk eta Universitat
Oberta de Catalunya kudeaketa eta politika
kulturalerako irakaslea den Jordi Pascualek.

Hauteskunde urtean alderdiak gose

2015ean donostiarrek berriz bozkatu behar-
ko dute Udal gobernua nork gidatuko duen.





Ikasturte zaila aurreikusten dute oraingo agintariek. Alkatetzarako kanpaina hasi da jada –2011tik noizbait etenik izan baldin badu behintzat–, eta 2016aren kudeaketaz oposizioaren aldetik zer espero duen galdezen hasita, Donostiako alkateari barrea atera zaio. “Nire buruari egiten diodan galdera, zera da: Bilduk gobernatu beharrean hemen beste norbaitek gobernatu izan balu, zer eszenario edukiko genuke? Seguruena oso diferentea izango litzateke”.

Penduluaren gisa ari da oposizioa Kultur Hiriburuaren eztabaidan: agintariak kritikatzeko maiz ateratzen da gaia, baina partidu bakoitzak Udaletik kanpo proiektuan daukan parte-hartzeak (EAJk Jaurklaritzaren bidez, PPK Espainiako Gobernutik eta PSEren konfiantzazko pertsonak, zeharka, Patronatuan *ad hoc* sorturiko koordinazio batzorde munizipalaren bitartez), beste aldeko keinuak ere ekartzen ditu noizbehinka, apirileko zurrunbiloaren ostean alderdi guztiek proiektua babesteko atera zuten argazki bateratua, adibidez.

Kontu delikatua da alderdientzat, inork ez baitu agertu nahi hiri osoarentzat izango den zerbaiten kontra. Baina, bestalde, Bildu higitzeko geratzen den kalibre handiko kartutxo bakarra dirudi: Igeldo udalerri bihurtzeko aukerak ez ditu batasun donostiarraren aldeko grinak gehiegi piztu; neguan denboraleak eragindako txikizioen aurrean azkar erreakzionatu zuen Udalak; ez dago hutsune nabarmenik eguneroko funtzionamenduan; eta hirigintza alorra ez dago geldirik, martxan eta aurreikusitako epeetan egiten ari dira hiriburutzarekin batera iritsiko diren azpiegiturak –autobus geltoki berria eta Tabakalerako obra–.

“Baten batzuek nahiago lukete kudeaketa txar bat, gobernu honek hau kudeatu deza-keela garbi geratzea baino, horren ondorioz hau gaizki atera arren”, dio Izagirrek. Donostian izan den Europako jarraipen batzordeak ere ohartarazi du klima politikoak ez diola mesederik egiten proiektuari.

Babesle pribatuek plan bat behar dute

%15erainokoa izan behar zuen hasieran 2016aren finantzazio pribatuak; erronka handiagoa izan litekeela uste dute arduradunek orain, %25era iristeraino. Eta diru hori

Krisi baten hasiera eta amaiera: apirilaren 3an azaldu zituen Itziar Nogerasek prentsaren aurrean bere dimisioaren arrazoiak. Astebete geroago, 2016ko bulegoko langileek proiektuarekin duen konpromisoa berretsi eta lema hartu zuten. Emaizta uztailaren 1ean ikusi da, Europako jarraipen batzordeak Donostiara egindako bisitan egin duen balorazio positiboarekin.

JUAN KARLOS IZAGIRRE, DONOSTIAKO ALKATEA

«Ez dakit honetara aurkeztuko ginatekeen ere, duela zortzi urte gobernuan egon izan bagina»

Proiektu hau PSeren Udalak gidatu zuen hautagaitza fasean. Hasieratik zuen esku egon izan balitz, berdina izango zen?

Kanpainan esan nuen proiektu honen diskurtsoa oso ondo zegoela, konpartitzen genuela. Azken finean, zertaz hitz egiten du? Bizikidetzaz, errespetuaz, parte-hartzeaz, aniztasunaz, elkarrekin eraikitzeaz, bakeaz... Horiek konpartitu ditugu hasieratik, baina edukiz hutsik zegoela antzematen genuen, mamia falta zela. Eta perspektiba pertsonalista ere eduki zezakeela.

Odon Elorzarena zela proiektua, alegia.

Bai. Gu egon izan bagina gobernuan duela zortzi urte, ez dakit aurkeztuko ginatekeen ere. Aurkeztu izan bagina, hau aurkeztuko genukeen? Ba ez dakit, seguruenak ez. Baina balore hauek lantzeko prest gaude eta beti egon gara.

AHTren aurkako Donostiako taldeak salatu du hiriaren merkantili-



LANDER ARBELAIZ

zazioaren mesedetan egindako proiektua dela.

Askoz errazago ulertzen ditut haien kritikak oposizioak egiten dituen asko baino, baina esango nieke arrisku bezala hartu ordez, aukera bezala har dezatela 2016a. Honek izan dezake makroproiektu baten usaina, betiko modeloa defendatzen duen zer edo zerena. Perspektiba hori dutenak errespetatuz, planteatuko nuke ea ez ote dagoen aukerarik hori hartuta zuk nahi duzun lekura eramateko. Balio dezake bestelako baloreak, betiko modeloa alde batera utzita

lantzeko? Ba agian bai, balio dezake.

Tabakalera eta 2016a lotzeko proposamena egin zuen Jaurilaritzako Kultura Sailak Blanca Urgell buru zenean eta ezetz esan zenuten. Zergatik?

Hiriburu Kultural asko oinarritzen dira hiriaren transformazioan, baina transformazio urbanistikotik, ez guk lortu nahi dugun transformazio sozialean: kulturaren bitartez balore batzuk lantzea gizarrean. 2016a balore batzuetan oinarrituta dago eta Tabakalera beste gauza bat da, kulturarekin lotua baina desberdina. 2016a pasa egingo da eta nire buruari galdeztzen diot zer ondare utziko duen. Ze, ez baldin baduzu egiten proiektu bat hiriaren transformazio urbanistikotik oinarrituta, gero zer geratzen da? Baloreak, bai; lantzen diren artisten arteko sareak ere bai; baina leku fisiko batzuk ere behar dira. Eta Tabakalera horren parte izango da.

babesleen bidez lortzea da helburua. “Kon-taktuak egin dira enpresa handiekin”, esplikatu du Izagirrek eta gaineratu du, bera pertsonalki aritu dela mota horretako gestioak egiten.

Zeregin horrekin jarraitzea zuzendari berriari egokituko zaio eta kargua hartzen duen unetik beltz egin beharko du lan, Kultur Hiriburuak hobetu beharrekoen zerrendan gorriz agertzen baita.

Izenik esan ez badu ere, Izagirrek adierazi du buruan dauzkala Euskal Herriko bi enpresa, garrantzitsuak, nazioartean ere hedatuta daudenak, eta Donostia 2016 babesteko prest egongo liratekeenak. Problema une honetan plan baten falta da, babesle horietako bakoitzarekin sinatu beharreko akordioari markoa ematen lagunduko lukeena. Horretarako lehen urratsak eman zituen Nogerasek karguan egon zen bitartean

eta alkateak uste du zuzendari berria ez dela hutsetik hasiko. Dena den, babesleena bulegotik haragoko ardura izango dela ere esan du, lerro artean gainontzeko instituzioen inplikazioa eskatuz: “Patronatuak berak eta bertako kideek egin beharko dute beren lana”.

%25erainokoa izan liteke Donostia 2016ren finantzazio pribatua. Babesleen ekarpenei markoa emateko plana osatzea falta da

2016a aboratu daiteke?

Finantzazio instituzionalaz ari dela, Espainiako Kultura Ministerioak eman beharko lukeen kopurua -11 milioi

euro, ministerioa bera abstenitu zen bozketan onartu zenez- iritsiko ote den ez dagoela garbi iradoki du, baina garrantzia kendu dio. “Beti esaten dudana da proiektua aurrera aterako dela nahiz eta instituzio batek edo besteak huts egin, herritarrek inplikatzeko lortzen badugu”.

Donostiarren erantzuna oraingoz hotza dela erantzutean, Bruselako batzordearen

Kapitalaren kultura?

EZKERRETIK jaso du Donostia 2016k orain arte egin zaion kritika sakonena: AHTren aurkako Donostiako taldeak maiatzean argitaratutako txostena. *2016ko Europako Kultura Hiriburutzak auzitan* izeneko dokumentuan (osorik irakur daiteke hemen: <http://ttiki.com/72458>), bi urte barru Gipuzkoako Hiriburua hartuko duen ekitaldiaren alderdi eztabaidagarriak mahai gainean jarri dituzte.

“Hiriaren komertzializazioarako tresna” izango dela dio txostenak, Donostia saltzeko marka eskainiko duelako. Proiektuak 2016. urterako aurreikusten dituen turismo datuak -1.400.000 ostatu-gau hirian eta

2.500.000 Donostialdean—, ondorio sozialak izango dituela uste dute, “turisten eskubideak” gaindituko duelako herritarrena.

Sormena petrolio

Operazio turistiko hutsetik harago, dokumentuaren arabera proiektuak herritarren dinamikak ere integratu nahi ditu. Biztanleen sortzeko gaitasuna “termino ekonomikoetan esplotatu eta errentagarri bihurtu beharreko aktibo” moduan ulertzea ekar lezake horrek.

Hiriburutzak herritarrei eskaintzen dien parte hartzeko aukera ere auzitan jarri dute, kulturaren bidez gizarte harremanak “neutra-

lizatzea” bilatzen dela salatuz: “Proiektuak eskatzen digun erabaketeo mobilizazioaren bidez, kulturak askatasunaren eta parte-hartzearen esperientzia despolitizatu eskaintzen du”.

Mundu osoan indarra hartzen ari den hiri eredu berriaren markoan kokatu dute 2016a: kapitalismoa, industrializazioaren ondoren, berregituratzen ari da ekonomia sortzailearen inguruan. “Hiri Sortzaile proiektuetara jotzen da, zeinetan ‘sormena haien ekonomiaren petrolio agorrezina izango den’”. Eta mota honetako ekitaldiek “funtzio legitimatzailea” dute, AHTren kontrako taldearen aburuz.

bisitan aipatu zioten zerbait ekarri du mahaira: “Beraiek esaten dute Hiriburu Kulturalek entusiasmo fase desberdinak izaten dituztela. Izendatzeko garaian izaten dela gorakada inportante bat; gero kristoren beherakada; eta urtea inguratzen den bezala, segun eta nola egiten diren gauzak, noski, berriz ere ilusoak gora egiten duela”.

Piratek Zurriolako hondartzan antolatutako Manu Chaoren kontzertuaren biharamuna da eta ezinbestean etorri da galdera: zer paper joka dezake mugimendu horrek Kultur Hiriburuan? Donostia 2016 *abordatu* daiteke? Izagirre kontzertuan izan zen eta Piratak erdutat dauzka, herri mugimenduek hiriburutzan zeresana izan behar dutela uste du. “Lantzeko gauzak dira, konfluentzia hori eman daiteke”. Piratek, beren aldetik, ez dute oraindik 2016ari buruzko jarrerarik hartu eta mugimenduaren barruan eztabaida egiteko dago.

Programa, programa eta programa

Kudeaketa kontuek hartu dute solasaldiaren parterik handiena ezinbestean, baina edukiez hitz egiten hasteko garaia hurbiltzen ari da, Hiriburu Kulturalean programaz, alegia. Bruselatik egindako eskari nagusia da eta uda ondoren aseko da, orduan jarriko baitzaizkie izen-abizenak 2016ko zitaren baitan Donostiara etorriko diren artistei eta ekimenei. Udazkenara arteko tarteak jarri du Europak programa aurkezteko. Beraz, denbora sobe-



ran ez badago ere, epeen barruan ibiliko da Xabi Paya buru duen taldea.

Apirilean programazioaren aurrerapen bat aurkeztu zion Itziar Nogerasek Fundazioaren Patronatuari eta egun batzuk lehenago *El Diario Vasco* egunkariari filtratu zioten. Aurreratu daitezkeen gauza batzuk deigarriak dira, adibidez, 10.000 musikari etorriko direla Donostiara Europako Musikari Gazteen jaialdiaren barruan, hiru egune-tan 1.000 kontzertu eskaintzeko—uda honetan Birminghamen antzeko zerbait antolatu dute—. Euskal Herriko zuzendarien film laburrak—Julio Medem, Victor Erice eta Kimuak programan hautatutako beste hainbat—, eta artearen historian indarkeriak izan duen agerpenari buruzko erakusketa bat ziren programaren aurrerapen horretako beste eskaintza batzuk.

Hizkuntza eta kultura minorizatu europarrak eta bizikidetzarako tresna gisa kulturak duen balioak ardaztuko dute programazioa, Izagirrek azpimarratu dituen gaiei erreparatuz gero. “Aukera paregabe” gisa deskribatu du egitasmoa, kulturaren eskutik Donostian eta Euskal Herrian “ariketa sakon” bat egiteko: “Konflikto bat pasa dugu eta hori gainditzeko pausoak eman behar dira. Gaitasuna eduki behar dugu normaltasunez hitz egiteko eta bizitzeko, ahaztu gabe gertatutakoak, baina aurrera egingez. Horretarako balio baldin badu, ez da gutxi”. ■

Herritarrak Hiriburu Kulturalean inplikatu daitezten, herri mugimenduekin harremana landu behar dela uste du Izagirrek





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat

160 dokumental baino gehiago ikusgai

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Atotxako ikurrina ezkutua
Banlieues. Pariseko errebolta
Bertsoaren aldagelan
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Debekatuta dago oroitzea
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Erretenak: Y belaunaldia
Espainiako Polizia Euskal Herrian
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskal Selekzioa herri baten ametsa
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Galerna, infernua itsasoan 1912-2012
Gudari baten egunerokoa

Haizea eta sustraiak
Hitz Egin
Ikazkin baten historia
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI
Iparralde Hegoa - Errotuz zabaldu
Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Isilpeko Lana (Inside Job)
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Kapitalismoa, maitasun istorio bat
Kontseiluak 10 urte
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Lur basatietako bakardadean
Nabarra Boua eta Matxitxakoko guda
Nire bizi osoa espetxean

Nomadak Tx
Oroitarria
Patio Maravillas
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai
Selekzio baten ibilbidea
The Pirate Bay - Teklatutik urrun
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian
Tximeletak, etengabeko metamorfosia
Zerutik sua dator!
Ziztadak

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

**EGUZKI
BIDEOAK**

elkarlanean



«Euskal Herria orain eraikitzen ez badugu, jan egingo gaituzte!»

“Har dezagun bidea, gure esku dago eta. / Milaka lagun oinez, eskutik oratuta. / Jende zoriontsua, herri libre batean. / Herri libre batean!”. Zelai Nikolas ere zoriontsua litzateke Euskal Herri libre batean.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Zurekin hizketan ginen ARGIAren orrialdeetan 2011n. Eusko Jaurlaritza barruko Tiraka bloga zen orduan aitzakia.

Desegin dugu!

Hara, bestea!

Bai, halaxe da. *Egunkaria* itxi zuten garaian sortu zen Tiraka. Orduan hasi ginen Jaurlaritzako hainbat lagun euskararen egotzaz kezkatuta. Hasierako kafe makinaren bueltako elkarrizketa horiek, beranduxeago mahai inguruko gogoeta sakonagoak bihurtu ziren. Lagunarteko giroan Eusko Jaurlaritzako langileok euskaraz lan egiteko genituen zailtasunez hitz egin genuen luzaro eta proposamen mardulak ere egin izan ditugu euskara planen eraginkortasunari buruz, legeak euskaraz sortzeari buruz, itzulpengintzaren eginkizunaz euskara berezko hizkuntza duen administrazio batean... Guk ekarpen hura egin genuen, une jakin batean eragileek egiten ez zutela ikusita. Kezka hark hainbat lagun bildu gintuen eta lanean aritu ginen hainbat urtez gure elkarlana eskainiz langile gisa. Gogoetak mahai gainean daude eta orain gauzatzeari ekin behar zaio, hau da, eraginkortasunez euskaraz lan egiteko baldintzak sortzeari. Horretan, uste dugu langile soilek baino, tresna egokiagoak direla eta zilegitasun handiagoa dutela Jaurlaritzak berak eta sindikatuek. Guk, azken finean, gure lanetik egin dezakegu gure ekarpenik onena, baina plan-gintza eta baldintzak ezartzea haiei dagokie. Horrela, Tirakan ginenok, ikusirik ekarpena

egin genuela, eragin genuela —ez guk baka-
rrik, hala ere, beste askok ere jardun du
horretan—, desegiteko momentua iritsi zela
ikusitu genuen, eta halaxe egin genuen, lagun
giroan. Euskaldun asko ari da administrazio-
an lanean, Lakuako korridoreetan gero eta
euskara gehiago entzuten da, baina lanean
betiko dinamikak agintzen du. Lana euskaraz
egiten baldin baduzu, denek estimatuko dizu-
te, euskarak prestigioa duelako gaur egun,
baina euskaraz sistematikoki lan egiteko egi-
tutarik ez da sortu oraindik.

Egiturak sortzea, horixe eginkizun.

Ikusi nola egin duten lan Eskozian, nola Kata-
lunian, eta gauza bat zait deigarriena: alegia,
gogoeta esparruak partekatu dituztela bi
herrialdeetan. Eztabaida oso modu gardenean
egin da. Euskal Herrian aldiz, ez dago aldake-
taren alde lan egiteko plataformarik. ELA eta
LABen artean egin da zer edo zer, baina herri

NORTASUN AGIRIA

Zelai Nikolas (Bilbo, 1968) Zuzenbide lizentziaduna da. Ezkondua, hiru seme-alaba ditu. Eusko Jaurlaritzan ari da 1998az gero, legelari. Tiraka blogaren bidez ezagutu genuen ARGIAren orrialdeetan orain dela hiru urte, eta hainbat forotan parte hartu du iritzi-emaila. Hala ere, Gure Esku Dago gizarte ekimenak lehenengo lerrora ekarri du Nikolasen irudia, eta, inondik ere, ez du ezkutatzeko ez atzera egiteko asmorik. Euskaldun ekina izatea zer den.





honetan ez gara, bakarrik, abertzaleok bizi. Diagnosiak partekatzeko fororik ez dago. Ez naiz ari erabakiak hartzeari buruz, hitz egiteaz baizik. Horrek ez digu uzten gure etorkizuna irudikatzen, eta gure etorkizuna ezin badugu irudikatu arloz arlo, ez ditugu etorkizun dena delako bat lortzeko tresnak jarriko. Lehenengo, nahi dugun Euskal Herria irudikatu behar dugu, guztion artean eta adostasunez. Horretarako, tresnak behar ditugu, eta adostasun politikoa. Herritarrok geure ahalegina egiten jarraituko dugu, ez baitakigu nondik sortuko den aukera, baina baliabideak behar dira, gauzak modu ordenatu eta sistematikoan egiteko, seriotasunez. Jendea gogoeta serioak eskatzen ari da, eta, horretarako, lana egin behar da, handik eta hemendik. Pentsatu egin behar

Euskara prestigiotu

“Administrazioan euskaraz normaltasun osoz jarduteko aukera dago. Nire arloan, legeak euskaraz idazteko aukera osoa dugu. Ezin gaitezke zain egon, edota langile euskalduna gaztelaniaz jarri lanean. Planifikazioak badaude, bai, baina eraginkorrak izan behar dira, bestela ez dute balio. Euskara prestigiatu behar da, eta euskaraz ari diren langileak saritu. Trena abian jarri behar da, eta horrek kostuak ditu. Guri, kostu horiek geureganatzea dagokigu”.

dugu nola egon nahi dugun bost, hamar edo hogeit hamar urte barru. Pentsatu.

Jon Sarasua horretaz ere ari da *Hiztunpolis*en. Luzarora begirako gogoeta...

Gustura ari naiz irakurtzen *Hiztunpolisa*, eta bat nator haren gogoeta askorekin. Gure etorkizuna pentsatzeari dagokionez, nola asmatuko dugu lurraldetasunaren korapiloa askatzen, ez badugu hango eta hemengo jendeak hitz egiten? Nola asmatuko dugu euskararen auzian, erdaldunek zer pentsatzen duten ez badakigu, edo bost urte barru zein baliabide izango ditugun ez badakigu? Euskal Herriak kokapen geoestrategiko interesgarria duela diote. Eman dezagun baietz. Zer esan nahi du horrek? Zeinekin jarriko gara harremanetan? Portugalekin, Erresuma Batuekin, Danimarkarekin? Zein ditugu aukerak?... Horrelako galderarik ez da egiten hemen, eta, aldiz, Espainian bai.

Espainian bai?

Bai. Hamaika institutu dituzte, nahi beste. Jendea horretara dago, pentsatzera jarrita; besterik da ondo ala gaizki pentsatzen duten. Katalunian ere antzeko egiturak dituzte; gogoeta. Dena den, niretzat deigarriena Eskoziak izan da, nola eragin duen nazio eztabaida. Eskoziako Alderdi Nazionalak, hauteskundeak irabazi eta ez zuen independen-

tzia aldarrikatu: “Gu independentziaren aldekoak gara, bistan da, baina goazen aukera guztiak aztertzeraz”, esan zuten. Prozesu deliberatzailea abiarazi zuten, demokrazia deliberatzailearen arabera. Gaia aztertu zuten, aukera berdintasunez. Nork bere proiektua taxutzeko, lantzeko eta azaltzeko aukera izan zuen, modu gardenez. Mahai gainean jarri zituzten argudio guztiak, eta ezer erabakitze-ko arauak eztabaidatu ere bai. Euskal Herrian zergatik ez dugu horrelakorik egingo? Ezin dugu beste hogeita hamar urte horrela igaro. Eztabaidatzeko baldintzak sortu behar dira.

Nork sortu behar ditu baldintza horiek?

Alderdi politikoek. Beraiek kudeatzen dituzte zergak, eta zergak dira gizartea hobetzeko denok egiten dugun ekarpena. Alderdi politikoaren ardura da adostasun politiko batera heletzea. Gizarteak, ordea, ezin du dena delegatu, dena alderdien esku utzi. Ematen du botoa emateko besterik ez gaudela herritarrok. Gure botoa hartu eta badirudi lau urtean nahi dutena egin dezaketela, baita hauteskunde programan agindu dutenaren kontrakoa ere! Hori demokrazia sano batean ez litzateke gertatuko. Sasi artean egiten dituzte akordioak, ilunpetan. Hori antzinako estiloa da, zaharra. Euskal Herriko alderdiak ez lirateke sartu beharko joko horretan.

Antzinako estiloa, diozu. Demokrazia ahul hau baino lehen, diktadura gogorra izan zen Espainiako Estatuan 40 urtez. Hori ez da debalde igaro... Diktadurak erabateko eragina izan du, eta du, oraindik ere. Diktadurak hainbat beldur eragin zituen, eta hainbat ezintasun. Jende ausarta izan da Euskal Herrian, eta eskerrak horri. Baina aldaketa irudikatzeko, eta gauzak askatasun osoz irudikatzeko, ezinak ditu jende askok: “Hori ezinezkoa da!”, esaten dute. Baina belaunaldi berria ere hor dago, hor gaude gu, ez dugu diktadura hori sufritu –zuzenean, behintzat–, ez ditugu beldur horiek bizi... “Zuek ez dakizue..., zuek ez duzue gogoratzen...”, hasten zaizkigu, eta egia da, ez dugu gogoratzen, eta ez dugu gogoratu nahi ere, joandako ura da, beste era batera pentsatzen dugu, bestelako askatasuna dugu pentsatzeko ere. Askotan entzun izan diot Ibarretxeri: batetik, oraingo belaunaldiak ez duela frankismotik edan, eta, bestetik, herri honek inoiz ez duela izan hainbeste herritar unibertsitate mailako titulazioa duena. Horietako asko, bestalde, atzerrira doaz. Eta zer egin behar dugu, joaten utzi, besterik gabe?

Zer esan nahi duzu?

Joaten utziko ditugu, eta kito? Ala sortuko ditugu babes etxeak, erreferentziak, Euskal Herri-

Tresnak olioztatzen

“Garai hartan ez Kataluniak ez Euskal Herriak zuten estatu egiturarik. Gaur aldiz, bai. Egitura ahulak, menpekotasunez beteak, baina estatu egiturak. Horiek abiaraztea zilegi da. Ondoren adostuko dugu Espainiarekin adostu beharrekoa. Bitartean, ordea, gure tresnak erabili behar ditugu. Estatuaren menpekotasunari eraginkor erantzuten ez badiogu, men egiten segitzen badugu, hustu egingo da gure egitura guztia, herdoildu egingo da, eta desegin. Erabiltzearen poderioz olioztatzen dira tresnak”.

kanpora, gero itzuli ahal izan daitezen, beren esperientziarekin Euskal Herria aberastu dezaten? Horixe da herri batek pentsatzen duena, epe ertainean eta epe luzean. Non daude gogoeta horiek? Zein dira agintarien planak?

Euskalduna oso jende ekina dela diote. Asko egiten da, gutxi pentsatzen?

Pentsatzeko, ordea, espazio egokiak behar dira. Euskalduna ekina da, egia da, eta esker-rak ekina den! Baina, pentsatu nahi baldin baduzu eta ez baduzu toki egokirik, nola landuko duzu arrano ikuspegia? Gauzak oso diferente ikusten dira panorama osoa ikusteko aukera duzunean, ondorioak bestelakoak dira. Niri, legelari naizenez, batzuetan gertatzen zait arrano ikuspegia baliatzea: legeren bat aldatu behar denean, errealitatea aztertu behar izaten da, dena delako arlo zehatzean dagoen egoera. Mendi puntatik ikusten da paisaia, ez baso barruan zaudenean.

Legeak lege, Madrilek ere baditu bereak. Berdin Parisek.

Ez da gezurra. 2011tik hona Espainiako Estatu gogor ari da. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Kataluniako Estatutua Espainiako Konstituzioaren kontrakoa zela erabaki zuenetik, prozesu zentralizatzaile oso gogorra dago martxan. Estatu berreskuratzeko ari da galduak zituen arrano ikuspegiak, ez zuen ikuspegi orokorrik. Harrezkero, legeak gero eta zentralizatzaileagoak dira, eta hainbat eskumen titulu hustuta daude. Erki-dego honen eskumen eskusiboak direnetan ere eskua sartzen ari da estatua: EPSV pentsioak dira, edo LOMCE da, edo beste. Zer egin behar dugu horren aurrean? Estatuak esaten diguna egiten jarraitu behar dugu? Legea denez, bete egin behar da, baina modu askotara bete daiteke. Are gehiago, akordio politikoaren bitartez legea ere alda daiteke. Horretarako, herri ikuspegia behar du Euskal Herriak, jakin behar du zein tresna dituen Estatuari ezetz esateko.

Ezetz esan lekiok Estatuari...

Espainiar konstituzionalisten testuak irakurri eta oso kezkatuta ageri dira beraien Estatuaren ahultasuna dela eta. Diote: “Kataluniako botere legegileak erabakiz gero Espainiako legea ez betetzea, Estatuak ez dauka horri kontra egiteko tresnarik”. Konstituzionalista horiek horixe esaten diote Rajoyri, alegia, negoziatzeko kataluniarrekin, oraingoa ez delako 1976ko egoera.

Alderdi politikoak jabetzen dira horretaz?

Nik uste zain daudela. Momentu politiko berezia bizi dugu. Eskozia, Katalunia...

Sentitu, pentsatu, egin

“Gure Esku Dagon ez ditugu, besterik gabe, gauzak egin nahi, sentitu egin nahi dugu, gauza politik egiteko gai garela, gauzak antolatzen ere badakigula. Pirritx eta Porrotxekin batera esateko: sentitu, pentsatu, eta egin”.

Alderdi abertzaleek ez dute garbi ikusten zer gertatuko den herrialde horietan eta, ondorioz, zain daude. Gerta daiteke egoera urtarri-lean argitzea, Eskoziako eta Kataluniako prozesuak zertan geratzen diren ikusi eta gero. Koiuntura berezia izanagatik ere, nik uste elkarrizketa gehiago behar dela alderdien artean, eta abertzaleen artean batik bat. Gehiago hitz egin bata bestearekin, eta nolako Euskal Herria nahi dugun irudikatu.

Eskozia, Katalunia... Haiei begira dago Gure Esku Dago?

Kataluniari baino gehiago, Eskoziari. Gure eredua Eskozia da. Hantxe ikusi da ondoen zelan bildu den jende diferentea, zelan onartu duen estatu batek herri bat, herri hori existitzen dela, eta herri horrek erabakiko duela bere etorkizuna. Pentsatzeko modu diferenteak izanda ere, proiektu politiko diferenteak, posible izan da horretaz lasai hitz egitea. Irailaren 18an, jendea boto ematera joango denean, jakingo du zergatik eman baiezko ala ezezko botoa. Katalunian ezin izan da horrelakorik egin; ez neurri berean, behintzat. Hala ere, eztabaidan ari dira, gardentasunez, modu ordenatuan... Sekulako erakustaldia egin digute gizartea antolatzeari dagokionez, zelan eratu diren estatutik etorri den bidegabekeria baten aurrean, nola haserretu diren, modu ordenatu eta zibilizatuan. Horixe ikasi behar dugu Kataluniatik. Eskozian, lidergo naturalek lidergoaz baliatu dira, ez dute gizartea mobilizatzea jo, prozesua kudeatzera egin dute, gizarteari galdetzea geroko utzita. Katalunian ezin izan dutenez prozesua kudeatu —Espainiako Estatuak ez dielako utzi—, bada, gizarteak berak hartu du gidaritza, prozesu osoari zilegitasuna emanez.

Gure Esku Dago, giza katea baino gehiago da?

Bai. Gure Esku Dagoren bitartez herritarrak konturatu dira zer nolako garrantzia dugun gauzak aldatzeko garaian. Bi herritar mota daude, behintzat: bata, delegatu egiten du, nahikoa du ordezkariak hautatzea, ez du besterik egin nahi; bestea ekina da, eta uste du zer edo zer ekar dezakeela, jakinda ere alderdi politikoek dutela ardura. Herritarrak ezin du

ordezkatu haien lana, baina lagun dezake. Garrantzizkoa da, ordea, gure ordezkariak guk nahi dugun moduan joka dezaten, haiek jakitea zein den gure borondatea. Herritarrok aldetetarako baldintzak sor ditzakegu eta ondoren gure ordezkariak herritarron babesaz hobeto kudeatuko dute aldaketa prozesu hori.

Gizartea mobilizatu duzue.

Aspaldi ari ginen esaten gizartea aktibatu beharra zegoela, baina ez genekien nola. Orduan *Gazta zati bat* dokumentala ikusi nuen, eta “Hori da bidea!” esan nuen. Orain arte defentsa jarrera izan dugu gizarte hone-tan, gurea babesten egon gara, eta horrek uzkurdua dakar, tentsioa, ezin irribarre egin, ezin inor erakarri, gauzak modu positiboan ikusi... *Gazta zati batek* erakusten du gauzak beste modu batera egin behar direla, enpatia handiz eta formak zainduta, euskal gizarteak erabaki nahi duela ulertarazten saiatu behar garela. Eta urtebeteko lanak erakutsi digu ezinezkoak ziren hainbat argazki posible direla. “Ezin da EAJ eta ezker abertzalearen arteko elkarrizketarik izan”, eta herri batzordeetan batzuk eta besteak egon dira lanean. “Ezin da euskaraz jardun”, eta hainbat batzar euskaraz egin dira, tartean erdaldunak egonda ere, bat-bateko interpretazio tresnak inprobisatuz. “Ezin da 50.000 pertsona elkartu”, eta 150.000 elkartu ziren. “Ezin da erabakitzeko eskubideari buruz jardun, ez da lehentasuna”. Bada, ahal da, erakutsi dugu baietz. Ezin da? Ezina ekinez egin! Ahal da.

Ez, beraz, “ezina ezinez ezina”...

Kar, kar... Ez, ez! Garai berri honek pazientzia handiagoa eskatzen du. Eta ez etsitzea. Ez dugu presarik eduki behar, sagar heldua bezala eroriko da: beharrezkoa da jarri, pentsatu, eztabaidatu, adostu... Gure lan egiteko gaitasunak markatuko du erritmoa. Eta, beti, gardentasunez jokatu. Orintxe, esaterako, Konstituzio erreforma ari dira planteatzen PP eta PSOE. Kataluniako auzia konpontzeko hirugarren bide bat pentsatzen ari dira, beharbada guri ere aplikatzeko gero. Tira, izan liteke. Baina ez nuke nahi hori abuztuan, bulego itxi batean adostea bi alderdiok. Horixe da 78ko Konstituzioaren akats handienetakoa, ez zela Euskal Herrian onartu, eta hori, nahitaez, sekulako zama da ezer eraiki nahi denean, eta Euskal Herria eraikitzeke fasean dago. Eta eraikitzen ez badugu, jan egingo gaituzte! Edo iraun egingo dugu, besterik gabe iraun, baina gure seme-alabek bestelako etorkizuna merezi dute. ■



Asko gara beste irtenbiderik ez dugulako eskean ari garenak

Andrei Vasilescu dut izena eta 29 urte ditut. Errumanian jaio nintzen arren, lau urte daramatzat Euskal Herrian. Txatarra biltzen aritu nintzen lanean, hiru urteren buruan ordea, langabezian gelditu eta etxea utzi behar izan nuen. Geroztik, kale gorrian bizirautean dut, eskean ateratzen dudak gutxiarekin.



ERRUMANIAN oinarrizko ikasketak baino ez nituen egin, aitari harategian laguntzeko utzi behar izan bainion ikasteari. Pilatutako zorrak medio itxi behar izan genuen nik 24 bat urte nituela, eta orduan hartu nuen, lana eta etorkizun duinagoaren bila, beste herrialde batera joateko erabakia. Italia iparraldean eman nituen hilabete batzuk lehenengo, lehengusu batek gomendatuta duela lau bat urte Euskal Herrira etorri nintzen arte.

Hasiera ez zen gogorra izan, ez egun bizi dudanarekin alderatuta bederen. Txatarraren negozioan murgildutako enpresa batean hasi nintzen, eta irabazten nuenarekin pisuaren alokairua ordaintzen nuen, lehengusuarekin eta beste lagun batzuekin batera. Ia hiru urtez iraun nuen, bizitzeko adina ematen zidan lan horretan. Tamalez, kaleratu egin ninduten orain bi urte.

Diru-iturririk ez nuenez, lehengusua ahalegindu zen ni laguntzen, baina ez nuen zama izan nahi, eta pisua uzteko erabakia hartu nuen. Ordutik, azken bi urteotan kalean bizi naiz, eta ez dut harremanik izan lehengusuarekin, lotsagatik ziur asko. Nire aurpegia ez erakustearren arrazoia ere horixe bera da: nola bizi naizen ikusiko balu, amak eta arrebeke ere nire egoeraren berri izango lukete lehenago edo beranduago, eta ez nuke hori gertatzerik nahi.

Kutxazainetan egin ohi dut lo, beti nirekin daramadan motxila handian dudak mantaren babesean. Jatera aldiz, Caritasen jantokietara

“Caritasen jantokietara joaten naiz batzuetan, nahiz eta bertan ez naizen oso eroso sentitzen. Ez da atsegina dirua eskatu behar izatea, baina nahiago dut hau egin, lapurtu edo negozio ilunetan hasi baino”.

joaten naiz batzuetan, nahiz eta bertan ez naizen oso eroso sentitzen. Eskean, egun onetan 10 bat euro ateratzen ditut, eta horrekin janaria ordaindu eta pixkanaka aurrezten saiatzen ari naiz, Errumaniara edo Italia iparraldera itzultzeko asmoa baitut.

Ez da atsegina dirua eskatu behar izatea. Hori bai, nahiago dut hau egin lapurtu edo negozio ilunetan hasi baino. Menpekotasunik ere ez dut, neguan gorputza berotzeko ardo botila bat edo beste erosten badut ere. Ez naiz droga gogorren tranpan erori, zorionez. Jende askok uste du eskean aritzen garen guztiok droga kontsumitzen dugula; denak zaku berean sartzen gaituzte. Ez dut uste ni pertsona eredugarriena naizenik, baina egia da droga-menpekotasun arazoak dituztenez gain, asko garesti beste irtenbiderik ez dugulako eskatzen dugunak; lan eta dirurik ezak kalean utzi gaituenak.

Aurrera begira, lana aurkitzea dut irtenbide bakarra, baina ez da batere erraza izango. Espainiera azkar ikasi nuen, eta ondo moldatzen naiz, baina ez naute inon kontratatuta nahi. Badira bi urte bila ari naizela. Bitartean, uda xamurragoa dela baliatuta, kutxazainetan lo egin eta eskean irabazitakoa apurka aurrezten jarraituko dut, noizbehinka herriz aldatuz, orain arte egin dudak bezala. Ez dut beste aukerarik. ■



ABREAST IN A BOAT

Bizitzaren alde arraunean

Bularreko minbizia gainditu duten emakume kanadarrek kantzerrak utzitako ajeentzako antidoto perfektua aurkitu dute: arraun taldeak sortu eta dragoi-ontzi estropadetan lehiatzea.

| JON ARTANO IZETA |



AMANDA NICKERSON

Abreast hitzak elkarren ondoan esan nahi du ingelesez. Aldiz, *a breast* bularra da, titia. *Abreast in a boat* esaldia, beraz, bi modura irakur daiteke: Elkarrekin txalupan eta Bularra txalupan. Irudian, Fort Langley-ko arraun-taldea.

AUTO BAT ziztuan Trans-Canada Highway-an. Barruan kirol arropa koloretsuz jantzita-ko bi emakume: Bev Dagg eta Maria Hindmarch. Astean birritan izaten diren entrenamenduetarako, Vancouver-etik Fort Langley-raino ordubete egiten dute. Entrenamendu ostean, jakina, beste ordubete etxera bueltan. Minbizia pasatakoak dira biak, eta batuz gero, 147 urte dituzte bien artean: 73 eta 74 urte.

Bidean beren gaixotasunaz galdetu diegu eta bakoitzak bere esperientzia kontatu ahala jabetu gara elkarrentzat ere berriak zirela esaten ari ziren zenbait kontu. Bost urte daramatzate entrenamenduak, estropadak eta autoko joan-etorriak konpartitzen, eta hala ere, orain arte ez zekizkiten bestearen gurutze-bideko hainbat detaile. “Izan ere, guk ez dugu gaixotasunaz hitz egiten, kar, kar, kar”, azaldu du Daggek. Eta konturatu gara Abreast in a boat ekimenaren arrakastak ez duela zerikusirik laguntza taldeetako ohiko terapien modue-

“Diagnostikoak beldurtu egiten du, paralizatu; arraun egiteak aldiz bizkortu egiten du, bizitasuna eta konfiantza ematen du”

Silvana Goldemberg

kin. “Elkartzen garenean ez dugu bularreko minbiziaz hitz egiten, jarduten gara hurrengo estropadaz, edo txiste-kontari, edo gure eguneroko poz eta kezka txikiez... Aterako da akaso gaia, baina oso noizik eta behin”. Palistek aurrera begira egiten dute arraun dragoi-ontzietan eta gisa berean begiratzen diote bizitzari, “gaixotasuna gainditu egin genuen eta”.

Jatorri, ideologia eta adin koktela da Langleyko taldea. Gazteenak 33 urte ditu eta badira lau kide 70etik gorakoak. Bat egiten dute, ordea, Abreasten sartzeko betekizunarekin: bularreko minbizia izan dute. Batzuek aspaldi, berriki bestetziek. Urrian

mastektomia bikoitza egin eta oraindik botikak hartzen ari den 50 urte inguruko emakumea, adibidez.

Elektrizitatea uretan

Fraser ibaia beti dator emaritsu, baina udaberrian, prestakuntza sasoi betean, korrontea lehenaz gain bizitzen du Rockietako elurren



BAL DOSANJ

Argazkian, Abreast-eko arraunlari talde bat. Atzean, eskuinean, Science World eraikina, Vancouverreko EXPO'86ko ikurra. Erakusketa haren karietara lehiatu ziren lehenbizikoz dragoi-ontziak Kanadan.

gesaltzeak. Gail Bonner-ek, lan-saioa ikustera txalupan eraman gaituen prestatzaileak, azaldu digu horixe dela beraien sasoiaren sekretua. “Zortzi Abreast talde gara Vancouverren. Filosofia, helburuak eta ahaleginak konpartitzen ditugu, baina uretara sartzean... denok nahi dugu irabazi! Eta gu izaten gara aurrenak zazpitik seitan. Korrontean entrenatzeari zor diogu hori”.

Entrenalditik hiru kontuk harritu gaituzte: lehenik, intentsitatea. Talde guztia ahalegin betean, izerdi patsetan, hasi denean, arraun profesionalaren elektrizitate bera transmititu digute. Bigarrenik, prestakuntza. Entrenatzailerak botatako agindu-kate zorrotza. Palisten teknika doitzeko helburuz saioa bideoz grabatzea. Hirugarrenik, goxoki etena. 90 minutuko jardunaren erdian, bost minutuko kera alaia egitea karameluak jateko.

... kantuz nahi bizi

Estropada izan da False Creek-en. Uretaratu aurretik kantuan aritu dira taldeak. Elkar adoretzeko kantak dira batzuk, libertimendu hutsa besteak: “*One boob, two boobs, no boobs at all! We don't care, we're having a ball!*” (Titi bat, titi bi, titiak falta! Eta zer? Guri bost, mundiala ez al da!?).

Pantalenerako pasabiderantz bisajeak serioitu dira; ontzietara sartzean ez da bromarik. Dragoi-ontzien estropadek kirol lehiaren ohiko tentsioa dute. Baina horretaz gain sakonera handiagoko kontrapuntu emozionala ere badute. Kirol probaren ondoren, irabazleek palak altxatuz agurra egin ordez, lore-eskaintza egiten dute. Ontzi denak elkarrengana lotzen dira ur gainean, eta minbi-ziak tostetatik kendutako ‘ahizpak’ oroitzen dituzte eskutik helduta, Garth Brooks-en *The*



Txangurrua

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



Bularreko minbiziak berriz erasateko arriskua %45 txikitzen du dragoi-ontziko ariketa fisikoak eta alderdi soziala ere oso garrantzitsua da. Mundu osora hedatu da ekimena: egun, 160 talde inguru daude, elastiko arrosez jantzitako milaka palista. Goiko irudietan, Fort Langley-ko taldekideak; eta eskutik helduta, Adriana Bartoli eta Silvana Goldemberg. Eskuineko argazkian, lore-eskaintza.



River abestuz. Amaitzean, arrosak botatzen dituzten uretara.

Gero lehorreko festa dator: taldekako mozorro sariketa. Lehiatzeak adina balio du hauentzat ondo pasatzeak. Horren sekretua ere azaldu digu Bonnerrek: “Bizitza arriskuan jarri dizun gaitza gaingitu eta gero egun bakoitza azkena balitz bezalaxe bizi nahi izaten da. Ez dakizulako zenbat geratuko zaizkizun”.

Gaurko estropadan ezustekoa gertatu da eta Delta-ko neskek Langleykoek baino ehunen batzuk lehenago sartu dute branka helmugan. Pozarren dago Adriana Bartoli, “behingoagatik” urrezko domina etxeratu-ko dutelako. Argentinarra da, Silvana Goldemberg bezala. Garai bertsuan etorri ziren Kanadara lan kontuengatik familiarekin. Garai bertsuan erasan zituen kantzerrak eta garai bertsuan ezagutu zuten elkar Abreasten.

Dragoi-ontziak

Dragoi-ontziak Txinako hegoaldean du jatorria. Perla ibaiaren deltako ontzioetan antzinatek eraiki dituzte txalupa horiek. Kantauriko traineruak baino pare bat metro luzeagoak dira (14 metro), eta dragoi-ontzi estropaden historia ere gurea baino pittar bat luzeagoa da: 2.000 urte pasako tradizioa dute. 20 arraunlari hamarreko bi lerrotan. Txopan lemazaina doa, eta brankan, danbor-jotzailea. Berak markatzen du paladen erritmoa.

Adriana, kantzerra daukazu

Adriana Bartoliri ez zitzaion burutik pasa ere egin minbizi izan zezakeenik. “Mamografia egin eta biharamunean berriz joateko eskatuz deitu zidatenean pentsatu nuen ‘bo, gaizki aterako zuan argazkia’. Medikuek bazekien senarra eta biok opor-bidaian joatekoak gine-la eta kontsultatik irtetean esan zidan: ‘Zoaz-te bidaia horretara, eta gozatu topera’. Eta esan zuen moduagatik igarri nion. Bidaiatik bueltan esan zidan: ‘Adriana, kantzerra daukazu’. Inork aditu nahi ez duen esaldia. Oinpean lurra desagertu eta erortzen ari nintzela sentitu nuen. Gero, hainbeste dira egiten dizkizuten frogak, zure bizitzaren kontrola galtzen duzula. Alienatua egon nintzen hilabete eta erdiz”.

Hasierako shock egoera gaingitu eta tratamenduarekin hasi zen: “Kimioa, erradiazioa eta antigorputzak; dena behar izan nuen”. Tratamenduan 12 hilabete egin eta bukatzeko beste sei falta zituela izan zuen Abreasten berri: “Zirujauaren kontsultan ikusi nuen eskuorri bat. Ez neukan arrastorik zer zen dragoi-ontzi bat, baina izena eman nuen eta horrek lagundu zidan nire bizitzaren kontrola berreskuratzen”. Silvana Goldembergek hartu du hitza: “Diagnostikoak beldurtu egiten du, paralizatu; arraun egiteak aldiz bizkortu egiten du, bizitasuna eta konfiantza ematen du”. Eta bere lehendabiziko eguna ekarri du gogora: “Besarkadak, gozotasuna, umorea.... Hasieratik onartua sentiarazten zaituzte eta zure iritzia kontuan hartzen dute.

McKenzie doktorearen esperimentu zoroa

1996KO OTSAILEKO GOIZ BATEZ bularreko minbizia pasatako 24 emakume batu ziren Columbia Britainiarreko unibertsitateko gela batean. Don McKenzie medikuak konbentzitu zituen bere proiektuan parte hartzeko: arraun taldea sortu eta ekainean Vancouverren ospatuko zen estropadan izena ematea proposatu zien. Medikuntza tradizionalaren haize-kontra zebilen zientzialariarentzat akuri lana egitea onartu zuten emakume haiek. Garai hartan, linfedema prebenitzeko modurik eraginkorrena zelakoan, ariketa fisikoa galarazten zieten minbizia izandako emakumei. Linfedemak gorputz atalak puztu eta minberatzen ditu, mugitu

mentu ahalmena murriztuz, eta noiznahi agertu daiteke bular ebakuntzen ostean. McKenziek uste zuen goialdeko gorputz adarren ariketa fisiko errepikakorrak linfedema arriskua txikitu egin zezakeela, eta dragoi-ontzien bidez nahi zuen frogatu bere teoria. Ontziratu aurretik taldea bi hilabetez aritu zen gimnasioan giharrak indartu eta beldurak uxatzeko ahaleginetan. Ekainean, estropadan parte hartu eta bukatzea lortu zuten. Ikerketak frogatu zuen McKenzie ondo ari zela: ez zen linfedema kasurik izan eta palistak askoz indartsuago zeuden. Eta alaiago.

Ordutik ikerketa gehiagok berretsi dute: bularreko minbiziak

berriz erasateko arriskua %45 txikitzen du dragoi-ontziko ariketa fisikoak. Medikuntza arloko emaitzek adina arreta behar du alderdi sozialekoak. Mundu osora hedatu dira bularreko minbizia pasatakoen dragoi-ontziak. Egun 160 talde inguru daude, elastiko arrosez jantzitako milaka palista. Kanadako osasun etxe guztietan daude informazio orriak: “Dragoi-ontzietako arraunak emakumeen ongizatea eta tratamendu osteko bizi-kalitatea hobetzen du”. McKenzie berak modu sinpleagoan eman ohi zien antzeko mezua taldera sartu berriei: “Txalupa moilatik abiatu ahala kantzerretik urrundu ko zarete”.

Lotura sortzen da eta badakizu aurrerantzean bizitza pertsonalean ezbeharren bat gertatuz gero ere, hor izango dituzula laguntzeko. Horrek lasaitasuna ematen dizu”.

Umore ona zabaltzen

Onura psikologikoa fisikoa baino lehenago sumatzen dute hasiberriek. “Lehenengo aldian oso urduri nengoen, baina lehen palakadak eman ahala joan zitzaizkidan nerbioak. Hilabeteetan pentsamendu beltzak dituzu buruan jiraka gau eta egun. Ontzian ordea ez daukazu arraun egitea ez den beste ezertan pentsatzeko betarik. Eta hori askatzailea da”, dio Goldembergek.

Bartoliri galtzarbeko gurintxo edo gangliak kendu zizkieten eta arraunari esker besoen mugikortasuna lehengora ekarri du. “Kontu egizu nola aldatu den ikuspuntua. 60ko

hamarkadan bularreko ebakuntza egindako emakumei kakorratz-lana egitea galarazten zieten! Dena *don't* zen, dena debekua. Eta gaur egun ere bada horrelakorik, Kalifornian artatu zuten lagun bati etxea garbitzerakoan kontu handiz ibiltzeko esan zioten”. “Nahia-gu nuke horixe bera esan izan balidate niri ere!” bota dio hitzetik hortzera Goldembergek, barre eztanda eraginez.

Bikotekidearen eta familiaren babesa izanagatik, ontziko kideekin egoteko premiaz aritu dira, eta Argentinan Abreast zabaltzeko egiten ari diren ahaleginaz. Nazioarteko estropadetara ere horretara joaten dira. Izan ere, kontzientziazioa dute helburu behinenetako bat, bularreko minbiziak utzitako mugak gainditu eta bizitzaz osoki gozatu daitekeela irakasteko. ■



LARTALDIK

Lartandieta Baserria

Urdaiaga Auzoa, 44 · 20170 Usurbil (Gipuzkoa)

© 666 607 447 · inigohuegun@gmail.com · www.larzaldiak.com

Koord. GPS: 43.266031,-2.067587



**June
Fernández**



KAZETARIA

Kontuz ibili!

PENTSA: BAT-BATEAN ezin zara gauez kalean ibili, ezin duzu igogailua erabili (ezezagun bat sartu daitekeelako), etxean bizpahiru gelen argiak piztuta mantendu behar dituzu inork pentsa ez dezan bakarrik bizi zarela. Ez, arrazoia ez da mehatxatu zaituztela; soilik emakumezkoa zarela. Horiek dira Espainiako Estatuko Barne Ministerioak bortxaketak saihesteko emakumeoi egiten dizkigun gomendioetariko batzuk. Bilboko Udalak liburuxka baten bidez hedatutako gomendioak ere antzekoak dira; betiere sexu indarkeriaren kontra proposatzen duten bakarra emakumeok gure askatasuna mugatzea da.

Feministok “sexu ikara” kontzeptua erabiltzen dugu gizarte patriarkal honetan bortxaketak gu kontrolpean mantentzeko balio duela deskribatzeko. Aldamenean gizonik behar ez duten emakume libre eta ausartak ez ditu patriarkatuak oso gustu-

kidea...). Eta kasu horietan are eta zailagoa da eraso identifikatzea eta salatzea. Baina erakunde publikoek datu hori eman ordez (ADAVAS sexu indarkeriaren kontrako elkartearen arabera, bortxatzaileen %15 inguru soilik dira biktimaren ezezagunak), nahiago dute emakumei esatea beldurrez ibili behar direla eta gizon ororen kontrako mesfidantza sentitu behar dutela.

Bortxaketa saiakera bati aurre egiteko Barne Ministerioak haxe gomendatzen du: ihes egiten saiatu eta laguntza eskatu. “Ihes egitea posible ez bada, ustezko bortxatzailearekin solasean hasi, bere asmoa kentzearen eta denbora irabaztearen helburuarekin”, aipatzen du gomendio zerrendak. Gobernuak ez du uste autodefentsa aukera denik. Gauza ez da *Kill Bill* filmeko protagonista bihurtzea. Baina sexu indarkeriaren prebentzioan adituek diotenez –Sharon Marcusek, besteak beste– emakume askok erasotzailea gelditzea lortu dute komentario sendo, bultzakada edota garrasi gogor baten bidez, baita erasotzaileak arma bat zeramanean ere. Marcus-en esanetan, botere matxista ez da nagusitasun fisikoan oinarritzen, emakumeak izaki babesgabeak garenaren aurreiritzian baizik. Botere harreman hori iraultzea da eraso sexista gelditzeko gakoa.

Askotan hitz egin dut zutabe honetan autodefentsa feministari buruz, benetan funtsezkoa delako, gure bizitza eraldatzen duelako. Eraso normalizatuak antzeman, arrisku egoerez ohartu, gorputzaren bidez zer komunikatzen dugun landu, jazarpenari aurre egiteko estrategiak garatu, eraso fisiko batetik atera... Horiek eta askoz gauza gehiago ikasten ditugu. Batez ere, barneratzen dugu aske bizitzeko eskubidea daukagula, ez dugula biktimaren papera onartu behar, ez diogula beti salbatzaileari itxaron behar, indartsuak gara. Erakunde publikoek “Kontuz ibili!” mezuari atxikia jarraitzen duten neurrian, ezinbestekoa da gure artean autodefentsa ezagutzak partekatzea eta Txanogorritxoren ipuinarentzat bukaera desberdinak asmatzea. ■



Errua eta lotsa dira sexu indarkeria salatzeako orduan oztopo nagusienak. Biktimek uste dute epaituak izango direla, eta kasu askotan hala da; gogoratu Nagore Laffagen epaiketan bere bizimoduaren inguruan amari egindako galdera gaiztoak

ko. Hobe dependentzia eta beldurra etengabe sustatzea. Bortxaketaren mamuaren bidez xantaia egiten dugu sistemak. Mezua argia da: genero arauak apurtzen baditugu (kalean bakarrik ibili; mozkortu; arropa motza erabili; ligatu; sanferminetan kamiseta erantzi...) eta bortxatzen bagaituzte, gure errua izango da. Errua eta lotsa dira sexu indarkeria salatzeako orduan oztopo nagusienak. Biktimek uste dute epaituak izango direla, eta kasu askotan hala da; gogoratu Nagore Laffagen epaiketan bere bizimoduaren inguruan amari egindako galdera gaiztoak.

Jakin badakigu sexu erasotzaile gehienak biktimen ezagunak direla (senidea, mutil laguna, senarra, auzokoa, lankidea, kuadrilako laguna, amorantea, militantzia



Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA ♦



DANI BLANCO

Azeri dantza

GURE AMA hil berriaren pazientziari zor diot txistulari bihurtu izana. Etxeko eta inguruko guztiei egin zizkigun erregalia ugariren artean —bere bizitza osoa oparia izan baitzen— bizimodu bilakatu zaidanaren karra piztu zidan.

Geroago, txistulari hastapenetan, aitonaren eskutik ttunttunero zahar asko ezagutu nituen. Misteriozko zerbait zerien euren doinuei: errespetua, herri xehearen jakintzari begirunea. Erabakita zeuden irmo plantatzen horren aurka ari zirenen aurrean. Ez da txatxukeria txistulari izatea.

* * *

AZERI DANTZA Hernaniko festen dantza ikurra da. Bertako bi txistulari taldeak eredu dira inguruko danbolinteroentzat. Herriak dituen behar guztiei ongi erantzuten diete, eskuarki musu-truk, eta arduraz zaintzen dute dagokien ondare kulturala.

San Juan egunean bi taldeak elkartzen dira aspaldiko urteetan Kontzertu berezia jotzera eta goiza beteta izaten dute. 2013an guraso batzuei bururatu zitzairen *Azeri dantza* haurrentzako moldean ere egin behar zela eta antolatzeari ekin. Egun horretako goiza aukeratu zuten, ordea, txistularien usadio eta iritziari erreparatu gabe.

*Haur Azeri dantza*ren antolatzaileek, sortutako ika-mikaren ondoren, txistularien dimisioa eskatu dute. Ez dakite zertaz ari diren.

Haur Azeri dantza-ren antolatzaileek, sortutako ika-mikaren ondoren, txistularien dimisioa eskatu dute. Ez dakite zertaz ari diren

* * *

1977. URTEAN Donostiako Aste Nagusiaren lehen egunean txistularien Kontzertu Nagusia egin behar genuen Konstituzio Plazan. Egun eta ordu berean antolatua zuten Askatasunaren Ibilaldiaren amaiera ekitaldia Donostiako Trinitate Plazan.

Horren antolatzaileak, azken momentuan, konturatu ziren Trinitate Plaza ez zela leku egokia, poliziak eraso egitea erabakiz gero, hura tranpa bihur zitekeela. Eta eguerdian etorri zitzaizkigun esanez gure emanaldia atzeratu behar genuela. Ezetz esan genien, euren atzeratzea zela bidezkoena. Berehala hasi zitzaizkigun demandan. Eskerrak Telesforo Monzon agertu eta txistularienganako errespetua

eskatu zien. Hark lortu zuen beren ekitaldia *laburtzea* (hiru ordu laurden), baina gurea atzeratu behar izan zen oholtza *hartu* egin zigutelako. Horraino iritsi zen errespetua.

* * *

TANKERA HORRETAOKAK maiz izan ditugu txistulariok polizia frankistarekin, ia alderdi politiko guztiekin, neurririk gabeko saltzaile eta tabernariekin, elizarekin... Beste txapelketa batean lehiatzen gara, ez azeriegan. ■



DANI BLANCO



Edu
Zelaieta

♦

IDAZLEA

Haurren eta helduen begietan

BARKATUKO DIDAZUE tonu sobera ez udatiarra, baina gero eta asalatuago nauka aferak. Sei urte bete dira aste honetan aita naizenetik, eta ezinikusia gero eta larriagoa dut: sexismoz jositako marrazki bizidunak nagusi eta gailen dira telebistan. Telebistan. Nardatua nago haurrentzako pantailan etengabeen berritzen diren genero-estereotipoekin. Esate eskandalagarri baterako, lotsagabe erakusten digute istorio ugaritako protagonista txikiak amek sukaldeko mantala janzen dutela gau eta egun, eta aitak askotan ez dira agertzen ere.

Bien bitartean, kaleko soziologiak mutu dirudi, eta itsu. Erabat normalizatu bide dago eredu tradizional hori 2014an; apenas zirikatzen duen inor ageriko sexismo latzak. Tamalez, aisa aurkituko dituzue arestiko adibideak, aparteko eginahalik egin beharrik gabe. Izan ere, gaur den egunean oraindik, sexistak ez diren haurrentzako marrazki bizidunak aurkitzea da salbuespena. Berdintasun planak gorabehera, indar batean diraite ideia zaharkituek haurren eta helduen begietan. ■





Andoni Mujika

◆ IRAKASLEA

Liderra

ERREPARO MODUKO bat dago gizataldearen zati zabal baten artean lider hitza onartzeko. Kutsatuta dago. Uste dut jende horrentzat termino horrek oihartzun negatiboa duela alde zurretik. Azken hamarkadatan, bizipen sozio-politikoengatik segur aski, liderra agintari zapaltzailearekin lotu dute; asoziazio oker bat egon da hor. Nik diot liderraren figura nahitaezkoa dela gure animalia-espezietan, eta beraz, edozein motatako gizataldetan eta organizaziotan, norbanakoaren hazkuntza eta taldearekiko interdependentzia diren bezalaxe. Lider bat edukitzea primate talde guztioi genetikoki heredatutako legea dela baieztatu daiteke dagoeneko. Eztabaidatu daitekeena da lider mota: eraikitzailea eta zaintzailea den, edo alderantziz, tirano bat, gainontzekoak baino bere burua zerbitzatzeko dagoena.

Jakina da lider on batek zenbait gaitasun pertsonal izan behar dituela, baina ez naiz horretan sartuko orain.

Lider kontzeptuaren eztabaidatik aldenduz, indarra jarri nahi nuke nire lidergoaren ulerkeran. Liderra diodanean, dohainez gain, proposamen interesgarria, ausarta, berritzailea eta egingarria dakarren pertsonaz ari naiz. Bi hitzetan esanda: liderrak eraikitzailea izan behar du; proiektu ausart eta berritzailea eduki; eta, horra oso gutxi iristen dira, amets hori egikaritzeko estrategia bat diseinatzeko jakin behar du.

Zoritzarrez gauza batekin konturatuta nago. Euskal Herrian euskalgintza, kooperatibagintza, politika eta hezkuntza, gutxienez lau esparru hauek, liderrez (eta proposamenez) nabarmenki umezurtz daude. Ez

dut ikusten proiektua duen liderrik esparru horietan. Lau pitzelkada eman ditzadan honetaz.

Hasteko, azken boladan, dirdira sortu du euskalgintzaren mundutxoan kontakizun sugerenteren batek, inongo planik ez daukan sasi-epistola batek. Dagoen premiaren adierazle. Bestetik, euskal kooperatibagintzaren proiektua zein den ez dakigu, ez dakite eta ez dago ahotsik zabaltzeko. Bi horiez gain, politikagintzan ez dago ez mezu interesgarririk, ez pisuzko mezularirik, ezta berrikuntzarik ere. Eta azken apuntea, hezkuntzan. Erabateko azaleko adostasuna dago instantzia guztietan: “Oso inportantea da!”. Baina ez dago aro honek beharko lukeen benetako berrikuntza pedagogiko errealek, salbuespenen bat kenduta.

Euskal Herrian euskalgintza, kooperatibagintza, politika eta hezkuntza, gutxienez lau esparru hauek, liderrez (eta proposamenez) nabarmenki umezurtz daude. Ez dut ikusten proiektua duen liderrik esparru horietan

Eta zer daukagu? Aipatutako sektore horietan egiturak eta esperientzia bat. Zahartzen ari diren eraikinak badauzkagu, baina mantenu lantxo hutsez biziberrituko ez diren edifizioak dira, grisak eta ospelak. Obra beharrean gaude. ■



• IRITZIAREN LEIHOA



1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 lagunei bidali

Film laburren erakusleihoari azterketa sakona

Euskal Herriko film laburren katalogo prestigiotsuena da Kimuak. Urtero hautatzen dituen lanak Euskal Herrian eta nazioartean barreiatzen dituzte, zinemaldi ugaritan besteak beste. 1998an Kimuak sortu zenetik 2012ra egin duen ibilbidea jaso dute liburu batean, hamabost edizio horietan parte hartu duten zinemagile eta filmak aztertuz.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

HAMABOST URTETAN, 109 pelikula eskaini ditu Kimuak katalogoak. Horien analisitik jaiotako gogoetak eta hautaturiko 18 zinegile-ri egindako elkarrizketak –hainbat pasarte irakur ditzakezu orriotan– jasotzen ditu *Cortometrajes de Kimuak*. *Semillas del cine vasco* liburuak. Lau urteko lan mardularen fruitua da, Ainhoa Fernández de Arroyabe Olaortua, Nekane E. Zubiaur Gorozika eta Iñaki Lazkano Arrillaga EHUko irakasleek egina. Gaztelaniaz da liburuak, Euskadiko Filmategiak aurrekonturik ez zuelako lortu eta Salamancako Comunicación Social argitaletxearekin argitaratu dutelako.

Lehenengo zatian, Kimuak egitasmoaren ibilbideari errepasoa egin diote autoreek. Ibilbide horretan hautatuak izan diren laburrak ere aztertu dituzte eta ondorio mordoxka bat atera dute. Lan gehienak fikziozkoak dira (%82), animaziozkoak %10 eta dokumentalak %6. Kimuak katalogoan, nahi-

Lausotu egin dira fikzioaren, animazioaren eta dokumentalaren mugak. Artistikoki ere, zinema esperimental, poetikoa, posmoderno... nahasten dira

ko fenomeno berria da dokumentala; 2008ko edizioan agertu ziren lehen aldiz, Jon Garaño zuzendariaren eskutik: *Asāmara* eta *On the line*. Azken urteotan, ordea, gero eta presentzia handiagoa dute dokumentalek.

Dena den, autoreen hitzetan, lausotu egin dira fikzioaren, animazioaren eta dokumentalaren mugak, eta filma genero batean edo bestean sailkatzea jada ez da hain erraza. Artistikoki ere, zinema esperimental, poetikoa, posmoderno... nahasten dira, eta zinemak bere baitan hartzen ditu, neurri handiagoan edo txikiagoan, bideo-kliparen, publizitatearen, bideoartearen edo bideojokoen bereizgarriak. “Genero, forma eta lengoaien hibridazioa da egungo sorkuntzaren ezaugarri nagusia”, diote.

Zinegileek maite dituzten gaiak

80ko hamarkadako sorkuntzarekin kontrastean, Kimuak katalogoko lanetan apenas





KOLDO ALMANDOZ

Errealitate manipulatu

“Dokumental guztiak faltsuak direla, hori dut abiapuntu. Errealitatea fikzionatzea interesatzen zait, edo fikzioa erreal bihurtzea. Hibridazio hori interesgarria iruditzen zait, frogatzen duelako fikzioaren eta errealtatearen arteko mugak ez direla hain garbiak.




ohartuko garena irudi erreala ez dela egiazkotasun frogabat”.

Sinesteko irudi erreala behar dugu, baina aspalditik irudi erreala guztiz manipulagarria da. Eguna iritsiko da

IONE HERNANDEZ Femeninoa, maskulinoa

“Emakumeak gutxiengo gara profesio honetan, emakumezko zine zuzendari oso gutxi daude. Gainera, badirudi interes handiagoa sortzen dutela gizonen istorioek, egitura, gai eta abar aldetik. Zaila da zuzentzea, gizon nahiz emakume izan, baina guretzat pixka bat konplikatuagoa da. Zuzendu, ama izan eta bizitzan errealtatu nahi baduzu, gauza ugari uko egin behar diozu, eskatzen duen denboragatik. Dena den, generotik harago doazen kontuak direla uste dut. Ni, funtsean, zinema onaren defendatzaile naiz. Zinema egiten duzunean oso zurea den zerbait espresatzen ari zara, oso pribatua den zerbait. Eta emakumea bazara, esentzia edo ezaugarri horren zati garrantzitsu bat egongo da zure obran, saihestezina da emakume baten obran elementu femeninoak ez antzematea. Baina ezaugarri femeninoak dituzten gizonak badaude, eta oso maskulinoak diren emakumeak. Sorkuntza artistikoan, zure zati emozionalera estuki lotu behar zarenez, zaila da emakumearen alde maskulinoak femeninoak estaltzea. Azken finean, sorkuntza emoziotik egiten da”.



LUISO BERDEJO

Haurrak eta suspentsea

“Pelikula batean suspentsea beti beharrezkoa dela uste dut, maitasun istorioa izan arren. Kontatzen ari zarena kontatzen ari zarela ere, ez duzu jakin behar zer gertatuko den ondoren. Haurrek agian hori iradokitzen didate eta horregatik agertzen dira nire filmetan, mundua ikusteko modu berri eta bakarra dutelako, beti txundigarria. Niretzat bizikleta bizikleta da, baina ume batentzat mundu bat da. Egunerokoan harritzeko gaitasun hori atsegin dut, gauzetara hurreratzeko xalotasun hori”.


ageri den gatazka politikoa gai gisa —ez film hautatuen artean, ez kanpoan geratu direnen artean—. *La vaca* (Gorka Esteban) da zuzenean gatazkari heltzen dion bakarra, eta zeharka jorratzen dute *Topeka* (Asier Altuna) eta *Haragia* (Begoña Vicario) obrek.

Genero dramatikoak, berriz, oparoagoa izan da. Familia kontuei lotuta bereziki (Koldo Almandozen *Belarra*, Safy Nebbou-

Beheko irudietan, ezker-eskuin: Zeinek gehiago iraun, Asämara, Haragia, Terminal eta Lepokoa.

ren *Lepokoa*, Inaz Fernándezen *Hauspo soinua...*), baina baita drama erromantikoa (Manu Gómezen *Hilarri*, Tinieblas Gonzálezen *The Raven*, Nacho Vigalondoren *Marisa...*) eta soziala ere (Mikel Ruedaren *Agua!*, Koldo Almandozen *Columba Palumbus...*).

Komediara hurbiltzen direnean, umore gazi-gozoa maiteago dute euskal zinegileek,





KOLDO SERRA Arriskatzea

“Film laburrak aukera ematen du film luzean esperimentatu ezin daitezkeen gauzak esperimentatzeko. Labur batean arriskatzen ez baduzu, ez duzu arriskatuko 90 minutu irauten duen hiru milioi euroko pelikulan. Film laburretan nahi duzun istorioa errodatu behar duzu, ongi errodatu, sarie-tan edo zabalduko dizkizun atee-tan pentsatu gabe. Zine eskola batzuetan, labur arrakastatsuak egiteko prestatzen dituzte ikas-leak, parametro jakin batzuk jarraituz. Batzuk oso sarituak izan dira, baina inoiz ez dut defendatu-ko estetika hutsa edo txistea baino ez den filma”.

BEGOÑA VICARIO Diskurtsorik ez

“Ni egiten joaten naiz, eta gertaerek ondorio batera naramate. Pentsatuko banu, ‘gai honi buruz zer-bait egingo dut eta hala amaituko da’, aurretik pentsatu dudana zerbaiti buruz-ko diskurtsua egiten nengoke. Jakina gogoeta egin dudala, baina ez planifika-tutako bukaera horretara naraman zerbait bilatzeko. Sentsazioak helaraztean datza filma. Nola bukatuko den jakingo banu, ez nuke egingo, istorioak berak bakarrik egin behar du aurrera”.



NACHO VIGALONDO Gure buruaz barrezka

“Norbaitek diagnostikatu beharko du zerga-tik eramaten ditugun komediak kutsu garratz horretara, edo benetan istorio garratzak ote diren bidean komedia tonuz janzten ditugu-nak. Zergatik du istorio hain ilunak kutsu hain komikoa? Nolabait, ez dudalako ikusten nire burua publikoari egia eskaintzen ari zaion norbait solemne gisa. Nire buruaz ziu-rrago eta zintzoago sentitzen naiz, egiten ari naizen pelikulaz barre egin badaiteke. Ez zaizkit gustatzen pertsonaiak beraiek peliku-laren esanahia azaltzen ari zaizkizun film anbiziotsuak. Azkenaldian hori gertatzen da: hasieratik maisulan izateko jaiotzen dira aurrekontu handiko hainbat pelikula. Ni ger-tuago nago itxuraz kontatzen ari direnaren garrantziaz konbentzitzea helburu ez duten zuzendari eta pelikuletatik”.

tonu iluna eta ironia tristea, gizakion miseriak tarteko (Nacho Vigalondoren *7.35 de la mañana*, Borja Cobeagaren *Éramos pocos...*). Kome-dia beltzak ere badu lekurik (Telmo Esnalen *Taxi?*, Irene Arzuagaren *Luis Soto...*) eta komedia erromantiko gutxitxo ikusi dugu Kimuak-en.

Genero errepikatuenetakoa, dena den, bel-durrezko zinema da, nahiz eta gehienetan beste genero batzuekin uztartuta. Adibidez, thrillerarekin (Haritz Zubillagaren *She's Lost Control*, Ugo Sanzen *Los ojos de Alicia...*),

komedia beltzarekin (Asier Altuna eta Telmo Esnalen *Txotx*, Koldo Serra eta Gorka Váz-quezen *Amor de madre...*) edo dramarekin (David Gonzálezzen *La calma...*).

Genero fantastikoak, azkenik, baditu bere jarraitzaileak Euskal Herriko sortzai-leen artean. Horren lekuko dira, esaterako, *Aizoa*, *City of the Wind* (Ione Hernández), *Razjelen itzulera* (Koldo Almandoz), *Hyde & Jekyll* (Sara Mazkianan) edo *Artalde* (Asier Altuna).

Liburuaren bigarren zatian, aukeratutako 18 zuzendari elkarrizketatu eta horien lanak sakonago aztertu dituzte. Eta amaieran, zor-tzi film labur nabarmendu (euskarazko hiru: *Terminal*, *Zeinek gehiago irauin* eta *Hezurbeltzak, una fosa común*) eta ikerketa analitikotik harago, horien gainean egindako hausnarketak, aurki-kuntzak eta iradokizunak eskaini dizkiote ira-kurleari. Oro har, Kimuak-en izan diren film laburren kalitate handia azpima-rratu nahi izan dute liburuaren egileek, pelikulen forma eta narrazio estilo aberats eta hetero-geneoak. ■



Aurtengoa prest


Aurkeztu diren 63 proposamenetatik, zazpi izango dira Kimuak zigitupean aurten erakutsiko diren film laburrak: *Zarautzen erosi zuen* (Aitor Arregi), *Soraa* (Asier Altuna), *Anómalo* (Aitor Gutierrez), *A Serious Comedy* (Lander Camarero), *Don Miguel* (Kote Camacho), *Hubert Le Blon-en azken hegaldia* (Koldo Almandoz) eta *Sailor's Grave* (kolektiboa). Irailean, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian abiatuko dituzte emanaldiak.

Gainerako musika-tresna tradizionalak bezala, iragan urrunetik dator txistua, baina etorkizuna ere bada, garaikide izan nahi du. Ondarea gordetzeko asmoz eta berria sortzeko helburuz ari da lanean Garikoitz Mendizabal, duela 10 urte sortutako bandaren zuzendaria.



Helduen Literatura | POESIA

Poeta katalan garaikideak. Antologia
Gerardo Markuleta.
Elkar, 2014



Fer-ne cinc cèntims

ZAILA DA labur azaltzea katalan poesiaren XX. mende oparoak emandakoa. Gerardo Markuletak argazki bat dakar hemen Urrezko Bibliotekara, sakona eta ederra, hitzaurre labur baina batezpada-ko batekin. Bertan azaltzen du antologoak Literatura Unibertsala bildumako *Poeta katalan garaikideak* (Ibaizabal, 1997) haren bigarren edizioa dela hau, diferentzia batekin; Vicent Andrés Estellésen “Goi-zean goiz heltzen diren kamioiak” poema bi balira bezala argitaratu ziren orduko hartan.

Poetak kanonari jarraituz ei daude hautatuak: Josep Carner, Carles Riba, J.V. Foix, Joan Salvat-Papasseit, Pere Quart, Salvador Espriu, Joan Vinyoli, Gabriel Ferrater eta Vicente Andrés Estellés. Bederatzi horietatik sei –Vinyoli, Ferrater eta Estellés izan ezik– José Batllóren *Seis poetas catalanes* antologian daude, 1969ko erreferentzia garrantzitsua.

Argitalpenak biziberritu egiten du beraz poesia antz eta bikain hori, katalanez egina, XIX. mendean berdetu zena eta liburuan errepasatzen den XX. mendean loratu. Poeta hauek edaten dute korrante zabal batetik, modernismoak eta novecentismoak gidatutako Europako literatura handienetariko baten oinordekoak dira. Abangoardiak aberastu eta zelan-bait berriro formulatu zuen lehen loraldiaren oinordekoak ere hemen daude irakurgai, Joan Salvat-

Papasseitek erreibindikatu zuen biharamuna ageri baita liburuan. “Izan zaitezte poetak: harroak, ausartak, heroikoak eta, batez ere, egitiak”.

Antzeko zer edo zer gertatu zaio Markuletari ere. Bere lanaren garrantziaz ohartua da itzultzaile fina, baina ez dio gozatzeari utzi nahi, ikasteari utzi nahi, egiti izateari utzi nahi. Horrela bada, poeten hautaketan kanonari kasu egin arren, poemei eurei itzulpen aske eta sentimentalaren finezia eman die, soiltasun eder hori, olerkari denak bakarrik jarri dezakeena, ez galtzeko jatorrizkoaren musika eta pultsua. Markuletak berak dio zenbait poeta katalan apailatzerakoan bere irizpideak ez zirela zurrun-zurrunka izan: “Ez nintzen unibertsitate irakaslea ez eta kritikari akademikoa, poeta eta itzultzailea baizik. Hitz bitan esateko, nik poema bilduma bat egin nahi nuen, ez poeta bilduma”. Pere Quartek laburbiltzen du antologiaren asmoa, XX. mendeko katalan poetena ere badena, lirikoa bezain nazionala, altua bezain lurtarra, letrekiko maitasun handiarena: “Ilara luzerik ez, mesedez:/ kasurik onenean,/ ni hiltzean,/ zuek, guzti-guztiok,/ onak zein gaiztoak, /ni hil ondoran bizirik iraundakoak izango zarete beste barik”. ■

Igor Estankona



Udarako Zientziatxokoak EUREKAN!

■ 3 - 10 urte ■ Jangela zerbitzua
■ 8:30 - 15:30 ■ 11 txanda



www.eurekamuseoa.es | 943 012 478





Voltaia
Voltaia
Autoekoizpena, 2014

Basamortuko doinuak



VOLTAIA taldea Zumaiakoa (Gipuzkoa) da. Aurten sortu da, eta jadanik bere lehen diskoa kalean dauka. Unai Eizagirre (baxua eta ahotsa), Jon Duran (bateria) eta Ion Brakamonte (gitarra) dira taldekideak, eta aurretik Itaka eta Got Ham taldeetan jotzen zuten. Voltaia lehen lanera zazpi kantu bildu dituzte, eta taldekideak beraiek grabazioaz, ekoizpenaz eta diskoa kaleratzeaz arduratu dira.

Taldearen izenaren beraren harira, volt maila handiko, tentsio handiko musika egiten dute, ozen entzuteko aproposa. Metal, stoner, rock eta punk aireak suma daitezke haien kantuetan. Basamortuko doinuak dira, basatiak, astunak, azkarak, indartsuak eta bortitzak.

Hitzetan, izurrite baten moduan, haien samina eta haserrea zabaltzen dute. Ahoan bilorik gabe, zuzen eta gupidarik gabe. Han eta hemen, haien herrian bertan eta munduan ikusten duten itxurakeria, bidegabekeria eta beste oker batzuen gainean hitz egiten dute: “Hesi bat gaindituz, ia odolustuz sailkatzen dituzte, paper ziztrin bat ez baldin badute; ez zara ezer” (*Urrun*). “Itsuen herrian okerrak errege dira; izurritea bezela zabaltzen dugu indarra, samina ta iraina, hau da gure voltaia” (*Gure voltaia*). “Besteen kontuak bizkarrez herriko kaleetan, hitz egiten, gaiz-

ki esan artean; hagin zorrotzak, nortasunak biluzten dituzten bitartean” (*Atarian*).

“Ez dugu erregerik nahi hemen jendearen dirua alferrik gastatuz; barkuan udara ederki pasatzen du beste batzuek jatekoa dute murriztu; egoera hau aldatu beharko” (*Erregerik ez*). “Gaua kanpoan zero azpiko gradutan, gizon emakumeak arratoien antzera; lurpean oihartzunak, itxaropena besterik ez da” (*Uda Berri*). “Laino bat zeruan hiriaren erdigunean, motor zarata, naturaren iluntasuna; beltza dago etorkizuna” (*Motordun Zaldu*). “Eskubide guztiak mozten dizkigute boterearen guraiza zorrotzek; izaki trajeduen indiferentzia, herritar xumearen hondamendia” (*Orratzak*).



Voltaia taldearen doinuak ikaragarriak dira, beldurgarriak. Taldekideek grina eta kemen handiz jotzen dute. Zer egin nahi duten eta nola egin nahi duten badakite, eta oso ongi egiten dute. Ez dira doinu alaiak, lasaiak, jende orok entzuteko modukoak, baina stoner-punk doinuak maite dituztenek Voltaia lehen diskoa gustura entzungo dute, ongi landua, grabatua eta ekoitzia baitago. ■

Joxi Ubema



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Gregorio Monreal Ziak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


3						2	8
6		9	1	8		3	4
			3	4			7
7							1
		1	2	9	7	5	
	9						7
	8			2	9		
	2	6		5	3	7	1
5	3						6

Zaila

	5		4				
				5	3	7	4
	9						2
	2	8	1		5		
3			6		9		1
			7		2	8	3
9							2
7		6	2	1			
					4		1

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Banku multzoa. 2.-Deiadarrak, auhenak. 3.-Haur txikia. 4.-Koaderno. 5.-Hautsaren araknido.

Kike Amonarrizen umorea

Ehunzangoak

Bi ehunzango Gaintxurizketako gainean, Behobia-Donostia lasterketako korrikalariei begira. Halako batean, batak besteari:

- Hara! Ikusten al dun ze hanka politak dituen korrikalari horrek?
- Politak bai... baina gutxi!



HOJUSARAM-CC BY SA



Soluzioak

Erraza

3	4	5	7	6	1	2	8
6	7	9	1	8	2	3	4
2	1	8	3	4	5	6	7
7	5	3	6	4	9	1	2
8	6	1	2	9	7	5	3
4	9	2	5	3	1	8	6
1	8	7	6	2	9	4	5
5	2	6	4	5	3	7	8

Zaila

8	5	7	4	2	6	1	9	3
1	6	2	9	5	3	7	8	4
4	9	3	8	7	1	5	6	2
6	2	8	1	3	5	4	7	9
3	7	4	6	8	9	2	5	1
5	1	9	7	4	2	8	3	6
9	4	1	5	6	7	3	2	8
7	3	6	2	1	8	9	4	5
2	8	3	3	9	4	6	1	7

Puzzlea:


“Oso gizarte anitza da gurea. Begirune eta ulermen kota handiak behar dira elkar ulertzeko, bestela beti egonen gara gehiago jakin baten menpe.”

5x5:

1. Banka. 2. Adiak. 3. Ninia. 4. Kaiar. 5. Akaro.

argia

ikus-entzunezkoen
EKOIZPENAK



Komunikazio ikuspegi orokorra, iraunkorra eta lankidetzan oinarritua

- Zuzeneko emisioak
- Ekitaldien grabazioak
- Promozio bideoak
- Dokumentalak
- Itzulpenak eta azpigitulazioak...

ARGIAko webgunearen eta sare sozialen bidez
zabalduko ditugu lanak

GURE AUDIENTZIA **ZURE ESKU**

Gure ezagutza eta gaitasun osoa,
profesionaltasunez eta prezio onean

10 urteko esperientzia bideogintzan
eta **1.200 bideo** baino gehiago ekoitziak

Informazio gehiago: 943 37 15 45 · ekoizpenak@argia.com



Euskal Herria ezagutuz

MAEZTU (ARABA)

MURIETA (NAFARROA)

Tren zaharraren arrastoari segika

Izkiko Parke Naturalean makina bat ibilbide zoragarri egin daiteke, zailtasun eta luzera ezberdinekoak. Izki estreinakoz bisitatzen duen naturazaleak berehala igarriko du zergatik den gune babestua. Zentzumenak askatu eta inguruak gordetzen duen aberastasuna arretaz sumatzea besterik ez dago. Natur parkean egin daitezkeen ohiko ibilbide ederrez gain, ordea, Arabako Mendialdeko txoko honek gordetzen du bestelako erakargarritasun bat: garai bateko Ferrocarril Vasco-Navarro trenbidea, egun bide berde bilakatua.

Testua eta argazkiak:

| GORKA AZKARATE |



Tren zaharra, Antoñanatik gertuko informazio gunean.

FERROCARRIL VASCO-NAVARRO ize-nez ezaguturiko trenbideak Gasteiz eta Lizarra arteko bidea egiten zuen, eta garraibide oso erabilia izan zen, XX. mendearen lehenengo hamarkadetan batez ere. 1920 eta 1927 bitartean eraiki zuten, eta haren 70 kilometro inguruko bidean Arabako bi eskualde (Lautada eta Mendialdea) eta Nafarroako bat (Lizarralde) zeharkatzen ditu.

Estreinako trenbideari, urteek aurrera egin ahala, hainbat adar gehitu zizkioten: Estibaltzeko monasteriora zihoana, batetik, eta Bergarako Mekolalde auzora ailegatzeko zena bestetik, Arlabango mendatea pasa eta Gipuzkoako Debarrena eskualdea zeharkatzen zuen trenbidea, hain zuzen. Aipagarriak dira trenbide sare horretako geltokien edertasun eta originaltasuna, garai batean eraikin deigarriak izan baitziren oso.

Gasteiz eta Lizarra lotzen zituen adar nagusia eraikitzeko orduan, bi kilometro pasatxo luze den Maeztuko tunela –gaur egun Laminoria tunela izenez ezaguna– zulatzea izan omen zen lanik zailena. Gaur egun, tamalez, ez dago erabilgarri, zati batzuetan hondatua dagoelako, eta ondorioz Gasteizko aldirietatik abiatzen den bide berdea tunelaren iparraldeko sarreraren moztuta dago, eta hegoaldeko sarreratik gertu abiatzen da berriz.

Laminoria tunelak Entzia mendilerroa zulatzen du alderik alde eta trenbidea, tunela igarota, Zadorrako arrotik Ega bailarara igarotzen da. Tuneletik gertu Laminoriako meategia dago, eta trenbideak geraldak bat dauka, ustiatetik urrun ez. Garai batean, trenaren bitartez garraiatzen zen meategian ateratakoa.

Egokitutako trenbide zaharra

Joan den mendeko *Ferrocarril Vasco-Navarro* hura bide berde erakargarria da gaur egun, oinezkoentzat zein txirrindularientzat egokitutakoa, zati handi batean behintzat. Araba eta Gipuzkoaren arteko mugan dagoen Arlabango mendatek hasi eta, Arabako Lautada eta Mendialdea zeharkatuz, Lizarraraino joan ahal izango gara, nahiz eta bide berdea eten egiten den zenbait puntutan.



Ibilbidea 76,4 km luze da guztira, eta horri beste zortzi gehitu behar dizkiogu, Laminoria tunela zeharkatu ordez jarraitu beharreko bide alternatiboari dagozkionak, Gereñuko mendatean barrena. Lehenengo zatia Arlaban eta Gasteiz bitartekoa da, hamabost kilometro inguru. Bigarrena Gasteizko kanpoaldetik Laminoria tunelaren sarreraraino doa (hogeiren bat kilometro); bigarren zati horretan Estibaltzeko santutegira doan adarra ere badago, beste hiru kilometro. Hirugarren zatia, erakargarriena ziurrenik, Santo Toribio ermitatik (Zekuiano, Arraia-Maeztu, Araba) Murietara (Nafarroa) doana da (37 kilometro); horixe aukeratu dugu Ihesi hau egiteko. Laugarren zatia, azkenik, Lizarratik gertu dagoen Zubielti eta Lizarra bera lotzen ditu (hiru kilometro). Pena da Murieta eta Zubielti artean bide berdea behar bezala egokitua ez egotea.

Santo Toribiotik Murietara

Arabako Mendialdea eta Lizarralde lotzen dituen bide berdeaz gozatzeko presta gaitzen, beraz, Maeztutik Musitura goazela,

Zekuiano baino pixka bat aurrera-zeago aurkituko dugu Santo Toribio ermita, eta ermitatik gertu egingo dugu bat bide berdearen hasierarekin, Laminoriako tunelaren hegoaldeko sarreratik 1,4 kilometro (0 km).

Laminoria haran hau basatia da oso, harrobiak bere atzaparra sartu ez duen eremuetan, noski. Behin bide berdearekin bat eginda, erraz egingo dugu aurrera, aldamenen metalezko hodi erraldoia lagun dugula. Laster iritsiko gara Zekuiano herriaren ingurura, basoak eta labore soroek bat egiten duten eremuan, eta gure arreta piztuko du guztiaren gainetik nabarmentzen den bertako eliza lerdenak.

Aurrera eginez garai bateko geraldakua topatuko dugu, Leorzako tunelaren sarreratik gertu. 200 metro inguru luze da tunel hori, eta argiztapena dauka, barruko bihurtuaren eraginez sortuko litzatekeen erabateko iluntasuna saihesteko. Eredu ederra da zinez, Leorzako mendi zintzur zoragarria zeharkatu behar baitugu orain, bide berdearen arrastoari segika, Musitu erreka zizelkatzen duena.



Goian, Atauriko presa txikia, izen bereko zubitik ikusita. Ezkerrean Maeztuko geltoki zaharra, gaur egun eraberritua.

hodia lagun, Zumaldeko aisialdi gunetik gertu, eta gutxi baino lehen bi zubi zeharkatuko ditu, Berron-Ega ibaiaren gainean.

Arazorik gabe joko dugu aurrera, Peña del Cinco harkaitzaren pean, oraindik ere abside erromanikoa mantentzen duen Soledad ermita txikia bisitatuz, harik eta Atauri herritik gertu bidea baso trinko eta freskagarri batean murgiltzen den (6 km). Eredu paregabea da hau, Atauriko tunela, zubia eta presa txikia baitaude bertan. Gutxi barru, Atauriko geltoki zaharrera helduko gara.

Antoñanako kale estuen xarma

Errepidea saihestuz, Soila menditik –Izki natur parkearen barruan– gailurreriaren magalean dagoen bidexka bati segituko diogu orain, gero atzera berriz jatorrizko bidearekin bat egiteko, Antoñana herritik gertu

Maeztutik oso gertu gaude dagoneko (3 km).

Haraneko herri nagusia da Maeztu, eta zerbitzu guztiak aurkituko ditugu bertan. Bide berdeak ezke-

rretik saihesten du herri-gunea, eta zuzenean geltoki zaharrera joko du, gaur egun bestelako erabileretarako baliatzen dena. Bide berdeak aurrera egingo du, berriz ere metalezko



Goian, ezkerrean: Soledad ermita eta bere abside erromanikoa. Beste bi argazkietan, Antoñana herriko txokoak, Erdi Aroko zaporez beteak.

—informazio gune bat dago bertan—. Aipagarria da kale estuek eta Erdi Aroko itxura lerdinak Antoñanari ematen dioten edertasuna (9 km).

Hemendik aurrera, jatorrizko bidea errepidean sartuko da. Biak txandakatuko ditugu tarte batean, Izki natur parkearen mendirik esanguratsuenak —Muela ikusgarria, besteak beste— bistaratuz, eremu arras ederrean (14 km). Aurrera egin ahala, Berron ibaia Ega bilakatuko da, eta Kanpezura hurbiltzen garen heinean paisaiaren erabateko aldaketa sumatuko dugu: mendi zintzur ikusgarrietan sigi-saga ibili ondotik, landa eremuko bide ia erabat zuzenera igaroko gara (19 km).

Atsedena, Kanpezun

Ioar mendi lerdnaren magalean, inguruko herririk garrantzitsuenak da Kanpezu, eta bertan atsedena har

genezake. Ibilbidea hasi dugunetik hemeretzi kilometro egin ditugu dagoeneko, eta berriz ere hasierako puntura itzuli nahi badugu, egindako bidea desegin beharko dugula kontuan hartzea komeni da, Lizarra arteko azkeneko zatiari ekin aurretik. Kanpezutik Lizarrara, hemezortzi kilometro inguru izango dira egin beharrekoak, tartean errepidez zatiren bat ere bai.

Izan ere, Kanpezutik Murietara bitartekoa dago behar bezala egokitu. Txangozale askok orain arte deskribaturiko zatia egin ohi dute eta atzera Santo Toribio ermitara itzuli, baina Kanpezu eta Murieta lotzen dituen zatiak ere merezi du, merezi duenez.

Nafarroako lurretan

Nafarroako lehenengo herri-guneak, Zuñigak, paisaia berriz ere aldatzeaz

dagoela jakinaraziko digu, baita Arabako Mendialdetik Lizarraldera igaroko garela ere. Landa eremu zabalak atzean utzi eta Arkijaseko mendi zintzurtean barneratuko gara, *Ferrocarril Vasco-Navarro*-ren zatirik bihurri eta malkartsuenean. Arkijaseko zubia eta 1,4 kilometroko tunela zeharkatu beharko ditugu, eta horrek erakargarritasun erabatekoa emango dio zati honi. Behin mendi zintzurra atzean utzita, Antzin eta Mendilibarri herriak igaro beharko ditugu, azkenik Murietara iritsi baino lehen (37 km). ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Janarien “ospea” aldatu egiten da (I)

NUTRIZIOAREN EREMUKO aurkikuntzek zenbait elikagaien alderdi negatiboak eta positiboak hobeto ezagutzeko aukera ematen digute. Baina aurkikuntza horiek mendetan zehar gure elikaduraren oinarria osatu duten “egia biribilak” zalan-tzan jarri edo are, erabat iraultzen dituztenean, galdera bitxiak sortzen zaizkio edonori: Txerrikia oso koi-petsua da? Saihestu beharra ote dago ezinbestean gure eguneroko jan-neurritik? Zer komeni da, arrain urdin asko ala gutxi jatea? Arrautza ona ala txarra da osasunerako? Izan ere, betidanik txarra zela uste genuena ez omen da hain kaltegarria, eta ontzat jotzen genuenak badu zer hobetua...

Dena den, elikagaiek gure begien aurrean duten ospea urteen eta garaiko moden arabera dezente aldatuz joan den arren, ez da komeni elikagaiak “osasun-garri” eta “kaltegarri” moduan sailkatzea, dieta osotasunean baloratu behar baita: jaten eta edaten ditugun elikagaien kalitatea, barietatea eta proportzioa dira kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak.

Gizakiak betidanik eman dio garrantzia jan-edanari, baina elikagaien inguruko usteak, iritziak eta balorazioak apenas izan duten oinarri zientifikorik historian zehar. Nutrizioa oso zientzia gaztea da, XIX. mendean hasi baitziren “kaloria”, “elikagai” eta halako kontzep-

tuak erabiltzen. Ordura arte, behaketan eta adituen eskarmentuan oinarritzen ziren. Hipokratesen aforismoak dira horren lekuko: “Izan dadila janaria zure elikagai, eta elikagaia zure sendagai”.

Janariak sailkatzeko hainbat irizpide erabili dira historian zehar. Hala, “puruak” eta “ez-puruak” bereizten ziren, edo “sendoak”, “tartekoak” eta “ahulak”, “osagaiak” eta “pozoiak” zituztenak, eta are “droga” gisa erabil zitezkeenak.



Kolesterol maila handitzearekin lotzen bada ere, eguneroko arrautza bat jan daiteke inolako kezkarik gabe.

Arrautza

Kolesterol asko dutenen artean begi txarrez ikusia den jaki honek balio handia du elikaduraren ikuspegitik, eta balio biologiko handiko proteina, lezitina, mineralak eta bitamina ugari dauzka. Lezitinak, hain zuzen, odoleko kolesterola suspentsioan edukitzen laguntzen du, eta horri esker ez da arterien paretetan piltzen. Hala ere, oraindik askok dute

arrautza beren odoleko kolesterol-maila altuaren erantzule bakartzat, animalia-koipectan aberatsak diren beste elikagai guztiei ere —hestebe-teei edo gaztei, esaterako— erreparatu eta bizimodu aktiboari ekin ordez. Laburbilduz, eguneroko arrautza bat har daiteke inolako kezkarik gabe.

Arrain urdina

Luzaroan, arrain urdina zuria baino askoz ere kaltegarriagozat jo izan da, koipe asko duelako, besterik gabe. Baina XX. mendearen bukaera aldera ikerketa ugari frogatu zutena baliatuz, arrain urdina txartzat ez, aitzitik, oso mesedegarritzat jo zuten adituek, haren koipe poli-insaturatuek —omega-3, adibidez— kolesterol txarra gutxitu eta ona gehitzen zutela ikusi zelako. Gaur egun, ordea, eta ez dira azkeneko aldaketatik 25 urte ere pasatu, arrain urdinaren mesedeak zalantzan jartzen hasi dira, bi arrazoiengatik: batetik, omega-3 gehigarrien inguruan egindako iker-

keta zabal batek frogatu du gehigarri horiek ez dutela hilkortasun-tasarik jaisten —heriotzaren zergatia edozein dela ere—; bestetik, gure inguruan asko kontsumitzen diren arrain espezie batzuetan aurkitutako metilmerkuriu kopuru handiak ikusita, gomendatutako asteroko errazioak birplanteatzen hasi dira adituak. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa




web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com
T.943 37 67 16

ideia batetik errealitatera

Ernioko biolina

ERNIOKO PORDONBARATZETIK pordoirik aterako ote zuten? Agian, baita gaur ere. Goi hartan, aldera karga makila luzean pordoinkatuta, artzaina beherantz begira dago, Tolosa aldera. Han, udako solstizioko eguna izaki, pordoi dantzariak segizioan doaz, bart atarietan zut lotutako lizar arben artean. Dantzarien buru, zinegotzi gazteena, eskuetan krabelin gorrizko eta zurizko sortan erdi ezkutatuta, ezpatatxo bat daramala. Gero, anda gainean lore gorrizko sorta handiak hankapean dituzten santuei dantzutuko zaizkie dantzariak, soinean zeharka xingola eta gerriko gorriak dituztela. Odolaren gorazarrea.

Guduarekin lotzen da pordoi dantza, zardai dantza, alagai dantza, galaien dantza... Izen ugari du. Pordoa ez da ez arma txarra, pare bat metroko makila ferratua. Makila-dantzekin eta ezpata-dantzekin ezkontzen da pordioena... Ukaldika aritzeko denak: pordoa, makila, ezpata...

Gduetako turutak, fanfarreak eta orkestrak baino musika apalagoarekin, baina musikaren harian dantza. Txistuaren, ttuntunaren,



OTER ARAOLAZA / DANTZAN.COM

silbotearen eta atabalaren aire gozoetan zurkaizten du, zangosagarretan zintzarriz jantzitako hanka hankaren segidan, pordoi dantzariak.

Gitarrarik ez da entzuten dantza horietan. Ez gitarrarik, ez biolinik; gudaren ondorengoetan entzungo dira horiek. Pordoirik gabeko dantzak izango dira orduan. Odol gogaikarria gogora ekarriko luketen xingola gorrien orde, zilarrek egingo dute dir-dir orkestrako harien eran. Hari instrumentuen hari apalena ere adie-

razten du “pordoi”-ren amandrea den gaztelerazko *bordón* hitzak. Lodiena da, eta doinu apalena, baxuenak haren kontu.

Biolinaren hari apal horri uztaiaren zurdak zirri egin behar dio, gozo baina helduz igurtzi. Heltzen ez badio, ez dago doinua egiteko dardarizorik; gehitxo helduz gero, doinua zakarra izango da... Zurdaren eta hariaren artean kolofonia ari da. Koniferoren batetik ateratako kolofoniaren artea. ■



0,0000001

Mikrogramoa, mikrometroa... Haien haziak neurtzeko erabiltzen diren neurriak metroa edo gramo baino milioi bat aldiz txikiagoak dira. Botanikaren sailkapenean hazi txikiak dituztenen multzoan daude: “Mikrospermak”. Orkideez ari naiz. Lore bakar batek sortzen duen fruituak, kapsulak, 10.000 eta 4.000.000 arteko hazi pila du. Horixe tiki-tikia! Hauxe ote da haien ugaritasunaren sekretua? Landare familia zabalena omen da, 30.000 bat espezie. Guk artifizialki sortutako hibridoak, beste 10.000 inguru. ■



KEVIN GEPFORD-CC BY SA



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

**ESKATU
PUBLIZITATEA
EUSKARAZ**

☎ 943 371 545 • publiz@argia.com
www.argia.com/tarifak

Titanic baino sei aldiz larriagoa

RUSS WILLOUGHBY BILDUMA



Wilhelm Gustloff ontzi alemaniarra portuan. 1945eko urtarrilean, inoizko itsas tragediarik handiena gertatu zen ontzia hondoratu zenean.

ITSASO BALTIKOA, 1945eko urtarrilaren 30a. S-13 sobietar itsaspeko batek *Wilhelm Gustloff* ontzi alemaniarra detektatu zuen. Alexander Marinesko kapitainak ontziaren kontra tiro egiteko agindua eman ondoren, hiru torpedok *Wilhelm Gustloff*en kroskoa jo zuten eta ontzitzarra ordubete eskasean hondoratu zen. 9.434 pertsona hil ziren, ia denak —eskifaikideak ez beste guztiak— zibilak.

Wilhelm Gustloff ontziak 1.865 bidaiarientzako tokia zuen baina itsas aginteak 6.000 pertsona eramateko baimen berezia eman zuen. Ejertzito Gorria Ekialdeko Frontean aurrera egiten ari zen eta etxetik alde egindako errefuxiatu alemaniarrek birkokatzekeo premiak bultzatu zituen erabaki hori hartzera. Ontzia hondoratu eta gero jakin zuten beste 5.000 errefuxiatu ezkutuan ontzian sartzea lortu zutela. Hala, hondoratu zenean, 10.582 pertsona zeuden ontzian. Horietatik 1.000 inguru salbatu zituzten hasieran, baina ehunka batzuk hipotermiak jota hilko ziren, Baltikoko ur hotzetan erreskaterean zain egon ondoren.

Ontziak brankan esbastika zeraman arren, Alexander Marinesko kapitainak bazekien errefuxiatuak zeramatzala. Baina kapitainaren karrera gainbehera ari zen: izaera egoskorra zuen, gehiegi edaten zuen eta haren dossierrean ohar negatiboak pilatzen ari ziren. Torpedoen laguntzaz egoera irauli eta Sobietar Batasuneko Heroi garaikurra lortu nahi zuen Marineskok. Saria jasotzeko hautagai izan arren, goi mailako agintari sobietarrek ez zioten domina eman eta hondoratzearen errua Luftwafferi berari egozten zion bertsioa zabaltzen ahalegindu ziren. Marineskori ez zion ezertarako balio izan historiako itsas tragedia larriena eragiteak.

Inoizko itsas tragediarik handienaz galdetuta, gehienok *Titanic* aipatuko genuke ziurrenik. Baina Bigarren Mundu Gerran Baltikoan gertatutakoarekin alderatuta, *Titanic*-en ezbeharra askoz txikiagoa izan zen; hildakoen zerrendari erreparatuta, zehazki, sei aldiz txikiagoa, *Titanic* hondoratzean 1.514 pertsona hil baitziren.

Baina, batetik, literaturak eta zinemak *Titanic*-en tragediari publizitate handia egin diote azken mendeen. Bestetik, sobietarrak *Wilhelm Gustloff*-i gertatutakoa desitxuratzen saiatu ziren eta gainerako aliatuek erasoaren ondorio izugarriei garrantzia kendu zieten. Finean sobietarrak ere aliatuak ziren, gerraren irabazleak. Eta, aldiz, Baltikoan itotako 9.000 zibil haiek, gehienak adinekoak, emakumeak eta haurrak, bando okerrekoak ziren. Galtzaileen bandokoak. ■



Arrastoak

Krimeako altxorrak Ukraina eta Errusiaren arteko gatazkan



KRIMEA: ITSASO BELTZeko URREA ETA SEKRETUAK erakusketa ekainaren lehena bitartean egon zen ikusgai Amsterdameko Unibertsitateko Allard Pierson Arkeologia Museoa (argazkian, K.a. 4. mendeko urrezko kas-koa). Baina erakusketako mila piezak Herbehereetan jarraitzen dute. Amsterdameko Unibertsitateak Ukrainako

bost museorekin sinatu zuen hitzarmena. Kontua da bost museo horietatik lau Krimean daudela eta, horregatik, Errusiako gobernuak altxorrek erreklamatu dituela, lurraldea anexionatu ondoren. Amsterdameko museoak lagapena abuztuaren 31 bitartean luzatzea lortu du eta orduan erabaki beharko du piezak nori itzuli. ■

Zer dira kolonia israeldarrak?

Hebron inguruko kolonia batetik irtetea hil zituzten hiru gazte israeldarren kasuak mendeku politikari ateak ireki dizkio: ehunka hildako eta milaka zauritu eragin ditu Israelgo armadaren azken operazio militarrek. Eta sorburuan kolonien arazoa agertzen zaigu.

| AXIER LOPEZ RODRIGUEZ |

ISRAELEK okupatutako lur palestinarretan eraiki dituen bizitokiak dira koloniak. Bertan juduen komunitateak bizi dira. Txalet-multzo itxurako gotorleku armatu hauek Nazio Batuen Ginebrako Hitzarmena urratzen dute. Militarki okupatutako lurretara herritarrek eramatea zehazki debekatzen badu ere, Israelek guztiz kontrakoa egin du 1967ko gerran Zisjordanian okupatu zuenetik.



EPA/ ABIR SULTAN

Har Homa koloniaren eraikuntza, Jerusalem ekialdean.

Eta Israelen derrigorrezkoa den hiru urteko zerbitzu militarra egitetik salbuetsita daude.

Kolonoek bakarrik erabil dezaketan 200 kilometrotik gorako errepide sarea eraiki dute lur palestinarretan. Koloniak eta kolonoak babestea helburu bakarra duten Israelgo armadaren milaka soldadu daude Zisjordanian. *Checkpoint*ak, gaueko etxeratze-aginduak, kargurik gabeko atxiloteta prebentiboak eta bestelako murrizketa andana dira

aginte militarren ondorioak palestinarrentzat.

Zergatik aritu nazioarteko legearen kontra?

Herrirka horien eraikuntzaren bitartez lurren gaineko jabetza ziurtatu nahi du Israelgo Gobernuak; etorkizunean bake-akordiorik balego horrek suposatuko lukeenari aurre hartuz. Kolonien eraispena izan da palestinarrekin bake-hitzarmenik ez lortzeko arrazoi nagusietako bat. Israelek presionatzeko duen karta bat da: akordio guztiek kolonien bizi-erapena jaso behar dute. Palestinarrak, jakina denez, diote ezinezkoa dela Israelek *de facto* indarrez okupatuta duen lur baten gainean negoziatzea. 1993ko Osloko negoziazioen hastapenetik hona Palestinako lurretan bizi diren kolono israeldarren kopurua bikoiztu egin da. Gaur egun, milioi erdi inguru kolono daude.

Zerk bultzatu du norbait lege kanpoko zonalde militarizatu batean bizitzera?

Arrisku horiek hartzeko prest diren argudio nagusia erlijioa da. Jainkoak judutarrei han bizitzeko esku-

bidea eman diela uste dute kolonoek. Halere, badira ulerterrazagoak diren beste arrazoi batzuk ere: Kolonoek zerga txikiagoak ordaintzen dituzte. Etxebizitzarako eta kredituak lortzeko laguntza bereziak dituzte. Enpresek hobariak jasotzen dituzte kolonietan egoitza jar dezaten. Laguntza hauei esker lan eskaintza handia dago kolonietan eta, paradoxikoa bada ere, kolono enpresariak palestinarrei lana ematea beste biderik ez dute.

Bestetik, kolonien %75 (360.000) ultraortodoxoa da. Beraz, laguntza orokorreki gehitu behar zaizkie erlijio-komunitate horrentzat espresuki dauden aparteko laguntzak. Ultraortodoxoen komunitateetan hamarretik seik ez du lan egiten. Torá, haien liburu sakratua ikastera dedikatzen dira eta hilero 500 euroko pentsioa jasotzen dute. Umeentzako laguntza berezia ere jasotzen dute. Kontuan hartu behar da familia ultraortodoxoek, batez beste, bost eta zazpi seme-alaba artean izaten dituztela.

Gatazkaren konponbideari eta balizko Palestinako Estatu baten sorrerari nola eragiten dio?

Zisjordanian gaur egun *gruyère* gazta baten modukoa da; elkarren artean deskonektatuta bizi diren zonalde txiki askok osatutakoa. Koloniek Zisjordanian lurraren %3 okupatzen badute ere, errepideek, base militarrek, *Checkpoint*en, Harresiaren eta gainerako segurtasun zonaldeen inguruko azpiegiturek lurren %40 hartzen dute.

Urteak joan, urteak etorri bake negoziazioak hasi, gelditu, bertan behera utzi eta berriz hasten dira. Bien bitartean, errealtatea da Israelgo Gobernu geroz eta lur gehiago kentzen ari zaiela palestinarrei. ■

argia.com Gaiari buruzko bideoa ikusgai duzu gure webguneko multimedia kanalean.



MARIAN BEITIALARRANGOITIA - MARKEL OLANO

Erabaki eskubidea helburu elkarlanerako prest, modua eta denborak adostu behar

Marian Beitialarrangoitia (Legazpi, 1968) EH Bilduko Eusko Legebiltzarreko parlamentaria eta Hernaniko alkate ohia da. Markel Olano (Beasain, 1965) EAJko biltzarkidea da Gipuzkoan eta lurraldeko diputatu nagusi ohia. Autogobernuaz jarduteko bildu ditugu. Adostasun nagusia: Euskal Herria subjektu politiko gisa eta bere erabaki eskubidea ordenamendu juridikoetan finkatu behar dira. Desadostasuna denboretan da.

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Dani Blanco

Autogobernuari begira hainbat urrats eman dira azken hamarkadetan Euskal Herrian. Non gaude orain? Zein da une honetan autogobernuaz egiten duzuen diagnostikoa?

Markel Olano: Une honetan bada-go autogobernuan urrats berri bat emateko aukera, bai Euskal Herrian eta, lidergo puntu batekin, baita EAEn ere. Paraleloan, bakea jorratzeko aukera berriak ireki dira eta, beraz, orain arte bai jarrera politikoan eta bai ikuspegi estrategikoan oso bereiziak ziren tradizio politikoak bateratzeko aukera dugu. Hemen eta nazioartean erabakitzeko eskubidea gauzatzeko abagunea bizi da eta aukera probestu beharra dago.

Marian Beitialarrangoitia: Autogobernuan eta bakea gauzatzerakoan, bietan dugu aukera bat eta, gainera, gizartearen eskari bat ere bai: eman ditzagun urratsak erabaki eskubidearen inguruan. EAEn eta Nafarroan eszenatoki berriak ireki dira eta horrek lurralde zatiketa praktikan gainditzeko hasteko aukera ematen digu. Estatuak Trantsizioan egin zuen antolaketa kinkan dago eta hori ez da hainbeste Kataluniak eta duelako finantzaziorik edo hemen autogobernua nahiko garatu ez delako. Egin zen hura, neurri

batean, burujabetza nahi hori ezartzeko egin zen. Urrats praktikoak pentsatzeko aukera dugu orain.

M. Olano: Momentu batean argi ikusi zen Gernikako Estatutua eta Foru Hobekuntzaren bidetik egin-dako bideek ez zutela etorkizunik. Ibarretxe lehendakaria izan zen hori ikusarazi zuena. Berak orduan egin-dako diagnostikoak orain ere balio du. Irakurketa hartan, zein zen Espainiako ikuspegia euskal autogobernuari buruz? Estatuak ez zen aldebiko ikuspegia jorratzen ari eta erabaki subjektu bakarra finkatzen zuen, Espainiako nazioa; eta ikuspegi juridiko eta politikotik, Estatuaren tresneria guztiak subjektu hori nagusitzen zuen, Gernikako Estatutak hasieran zuen aldebiko ikuspegia urardotuz. Horren aurrean Iba-

retxe lehendakariak nahi izan zuen erabaki eskubidea finkatu, hartutako erabakiak gure borondatearen ondorio izan zitezen eta ez tresneria konstituzionalaren arabera.

Espainian eredu federalaz hitz egiten hasi da berriz. Espero duzue zerbait hausnarketa horietatik?

M. Beitialarrangoitia: Estatuaren aldetik ezin da ezer espero eta ez dut uste Estatuak benetako izaera demokratikoa erakutsiko duenik. Aldebikotasunaz hitz egin duzu Markel, baina horretarako alde bakoitzak bestea aitortu behar du eta gaur egun Estatuak ez du aitortzen Euskal Herria subjektu politiko denik eta ez honek bere etorkizuna modu libre eta demokratikoan erabakitzeko eskubidea duenik. Utz diezaiozun paretaren aurka jotzeari eta ikus dezagun hemen egindako lanarekin nola gaintitu litekeen berau, herritarrek eskatzen diguten erabaki eskubide hori egikaritzeko, horretarako gehiengoak badira eta. Abertzale eta ez abertzale artean topatu behar ditugu bide berri horiek, ados, baina ezin dugu utzi abertzale ez direnek erabaki dezaaten, abertzaleen arteko akordiorik lortzen ez dugulako.

“EAEn eta Nafarroan eszenatoki berriak ireki dira eta horrek lurralde zatiketa praktikan gainditzeko hasteko aukera ematen digu”

M. Beitialarrangoitia



Gipuzkoako Batzar Nagusietan egin genuen elkarrizketa; argazkikoak hil berri den Nestor Basterretxearen eskulturak dira.

M. Olano: Badirudi haize berriak daudela Espainiako politikan, baina zaharrak berri. Duela gutxi entzun nuen irati elkarrizketa batean Pedro Sanchez PSOeko idazkari berria eta argi utzi zuen zein zen subjektu politikoa, Espainiako nazioa. Bere planteamendu federalistan berriz proposatzen da kafea guztientzat. Gure helburu nagusia subjektu politikoa finkatzea da, Euskal Herria, eta hortik abiatuta gure inguruko errealitate instituzional eta estatalekin nahi ditugun harremanak ezarriko ditugu. Trantsiziotik datorkigun autogobernu maila, bere muga eta akats guztiekin, ona izan da herri honetarako. Gernikako Estatutuan Euskal Herria argi ageri da subjektu politiko gisa, baina gero portaera instituzionalak aldatu egin dira apurka eta Espainiako politikagintzan ikuspegi monolitikoa finkatu da, laster Kataluniari emango zaion erantzunean argi azaleratuko dena.

Eusko Legebiltzarrean Autogobernu Ponentzia jorratzen ari da une honetan. EAJk abiarazi zuen, estatus berrian erabaki eskubidea eta Estatuarekiko alde bikotasuna lortu

nahian. Zuen iritziz noraino iritsi daiteke ponentziaren lana?

M. Beitialarrangoitia. Ponentziak badu lan bat egiteko eta Nafarroako Legebiltzarrean ere antzeko lan bat egin beharko da, subjektu politikoa Euskal Herria delako. Ondoren, gure errealitatea kontuan hartuta eta erabaki eskubidean oinarrituta, lurralde bakoitzak erabaki beharko du zer izan nahi duen. Ponentziaren hastapenean, dena den, ez zen lortu berau EAJ eta EH Bilduren arteko akordio batetik abiatzea, non argi azalduko zen ponentziak ez zuela onartuko erabaki eskubidean oinarrituko ez zen ezer.

Tamalez, beste akordio batzuen gainean hasi zen eta beste era batera. Orain, urtebete galtzeko arriskua du ponentziak. Diagnostikoak eginak daude, beraz, oraingo lana da finkatzea nola lortuko den erabaki eskubidea egikaritzea, eta gainera elkarrekin, ekainaren 8an Gure Esku Dago ekimenak adierazi bezala. Markel eta ni hemen ados gaude, baina gero entzuten dut Otuazar Madril en hark esaten duena ez dator bat Markelek dioenarekin, hura batez ere Madrilgo mintzaki-

detzari begira dagoelako, hango Gobernuak telefonoa hartu ere ez dionean egiten. Lehenengo hemen egin behar da prozesu hori eta gero Madril eskatu erabakitakoa errespetatzea.

Baina oraingoz behintzat, elkarlana baino gehiago azaleratzen da zuen arteko liskarra eta ezadostasuna. Non dira oztopoak?

M. Olano: Nire ikuspegia poliedrikoa da, ea lortzen dudatan sintetizatzea. Lehenik egiten dugun galdera da ea honek prozesu abertzale bat izan behar duen, eta denon erantzuna da ezetz; helburua ahalik eta adostasun zabalenak lortzea litzateke. Bigarrenik, hor dugu lurralde zatiketa. Guk prozesu honetan subjektu politiko konfederal bat definitu nahi dugu eta hori Euskal Herria litzateke. Ibarretxeren egitasmoak ere hortik jo zuen. Beraz, adostasun ahalik eta zabalena bai, baina beto eskubiderik gabe. Marianek urtebete galtzeaz hitz egin du, baina oso garrantzitsua da hasieratik saiakera egitea, bestela prozesuak irudi abertzalea hartuko luke hasieratik eta hori txarra litzateke. Ponentziak,

gutxi gorabehera, urte bukaera arte jarraituko du agerraldien fasearekin eta gero proposamenen garaia etorriko da, baina hor erdian udal eta foru hauteskundeak daude eta honek dakarren lehiaren ondorioz —batez ere EAJ eta ezker abertzalearen artekoa—, distortsio esanguratsua gertatzeko arriskua dago. Ortuzarrek esaten duena? Oso logikoa da eta zera da, kontzertu ekonomikoa badugu, kontzertu politikoa ere lortu behar dugula.

M. Beitialarrangoitia: Gu ere ez gara planteatzen ari prozesu abertzale bat, baina gutxiengo batek planteatzen den helburu demokratiko minimo hori onartzen ez badu, horrek praktikan beto eskubidea dakar.

M. Olano: Baina ez gaitezen aurreratu, gutxieneko hori onartzen ez dutela ikusaraztea ere oso garrantzitsua da.

M. Beitialarrangoitia: Herri honek erabaki eskubidean oinarrituko ez den ezer onartuko ez duela hasieratik garbi uztea ere oso garrantzitsua zen. Hori onartu nahi ez duen gutxiengoaren betoa non-baitetik hautsi behar da eta horretarako aritu behar dugu elkarlanean.

M. Olano: Baina Marian, zalantzarik kanpo dago Eusko Legebiltzarrean gehiengo abertzalea dela...

M. Beitialarrangoitia: Baina gehiengo hori praktikan artikulatu behar da...

M. Olano: Borondaterik ez duenari hasieratik ematen badiozu hori betatzeko aukera, beto hori era kasikarrean ikusarazten da. Horregatik da egokiagoa hasieratik bakoitzak bere proposamenak plazaratzea eta gero hasiera oinarritzko gune baten bila. Hori da erabaki eskubidea plazaratzeko unea. Denbora horretan, gainera, instituzioak eta gizartearen protagonismoa bateratu behar ditugu. Kataluniako kasuan, herritarren mobilizazioa erreaktiboa izan da neurri batean, hau da, Espainiatik hartutako erabakien erantzun gisa etorri da. Gurean ere hori guztia ondo ikusaraztea oso garrantzitsua da, prozesuak koherentzia handiagoa izan dezan.

M. Beitialarrangoitia: Baina une batean erabaki eskubide hori gauzatzeko proposamen argiak egin



M. Beitialarrangoitia: “Zer da elkarrekin lor dezakeguna? Horri eman behar diogu lehentasuna edozeren gainetik, areago jakinda bakoitzak bere aldetik jota ez dugula helburua lortuko”.

behar dira eta uste dut alderdi guztiak ez direla hori egiten ari. Presa ez da ona, baina denbora pasatzen uztea ere ez. Funtsean, Ortuzarrek dioen bezala, proposamenaren oinarrian EAJren mintzakidea Madril izatea bada, hor arazoak ikusten ditut; eta proposamenen oinarrian erabaki eskubidea bada, adostasuna errazagoa izango da.

M. Olano: Gaia erabaki eskubidearen inguruan orain proposamen zehatzak egitea balitz, EAJk ez luke horretarako arazorik, Estatutu Berriaren inguruan Ibarretxe lehen-dakariaren garaian egin zena aterako luke eta kito. Baina hau prozesu bat da eta bere denborak eta urratsak argitzea ezinbestekoa da. Etapa bat erre behar da.

M. Beitialarrangoitia: Erabaki eskubidea oinarri, dena daukagu definitzeko: euskal lurraldeen artean zer harreman nahi dugun, estatuekiko zer harreman, mun-

duan nola kokatu nahi dugun eta, funtsean, zer izan nahi dugun.

Ibarretxe Planaren garaian argi ikusi zen ez zegoela estrategia bateratu bat hura aurrera eramateko. Orain ere, Eusko Legebiltzarreko ponentzia honetan, berriz hanka sartze bertsua egingo da?

M. Beitialarrangoitia: Horregatik esan dut lehen Gure Esku Dago ekimenean jendeak eskutik ikusi gintuela eta hala nahi gaituela. Orduko ezaugarri garrantzitsua zen ez zegoela gizarte mailako aktibaziorik; orain bada eta oraindik biziago ere beharko du. Gizarteak eskatzen digu alderdiei geurera bakarrik ez begiratzeko eta ahalegin hori denok egin behar dugu.

M. Olano: Lizarrako garaiak demo moduan funtzionatu zuen. Batetik, elkarlan prozesu orok beti sortzen du barne tentsio handia parte hartzen duten guztiengan. Beti daude batzuk prestuago gaudenak halakotan parte hartzeko eta beste batzuk uzkurrago. Batetik, beraz, alderdi bakoitzak hori landu behar du bere baitan, areago azken urteetan sortu diren hainbat gorroto eta ikusezin hor direnean. Bestetik, halako prozesuetan lidergo lehia bat dago eta komunikazio lehia bat. Lizarrakoan, adibidez, komunikazioak ezker abertzalearen lidergo irudia indartzen zuen eta EAJrena ahuldu, guri morroi irudia emanez. Lan hori

“Halako prozesuek behar dute sukalde lan handia, baina baita ere herriak markatzea agintariari zer den garrantzitsua eta zer ez”

Markel Olano

guztia modu desorekatuan egiten bada, prozesuaren-tzeko kaltegarria izango da eta hori guztia alde aurretik landu behar da. Bakarren batek izan dezake tentazioa prozesu hori bere lidergoa indartzeko erabiltzeko eta hori saihestu behar da.

M. Beitialarrangoitia:

Halako prozesuetan era guztietako arriskuak daude, adibidez berau aurrera eramateko borondaterik ez izatea, baina horiek ez lukete izan behar oztopo aurrera egiteko, herri moduan ditugun erronkak itzelak dira eta. Zer da elkarrekin lor dezakeguna? Horri eman behar diogu lehentasuna edozeren gainetik, areago jakinda bakoitzak bere aldetik jota ez dugula helburua lortuko. Sukalde lan handia behar da eta nahiago nuke ponentzian galdutako denbora hala-koetan ematea.

M. Olano: Ibarretxe lehendakaria bere proposamenarekin Madrilera joan zenean, sumatu nuen askok —ezker abertzaleak, ELAk...— ez zutela begiratzen zer proposatzen zen, proposamena nork egiten zuen baizik. Halako prozesuek behar dute sukalde lan handia, baina baita ere herriak markatzea agintariari zer den garrantzitsua eta zer ez. Gure Esku Dagok, adibidez, oso lan polita egin du alde horretatik, erabaki eskubidea hartu du eduki nagusi bezala eta esan du horren inguruan kontzientziatu behar dela gizarte.

M. Beitialarrangoitia: Baina beste gauza oso inportantea ere esan digu: elkarrekin egin behar duzue, herri gisa.

Zuentzat Gure Esku Dago ekimena zer da, presioa ala aukera?

M. Olano: Aukera da. Bere unean txakurra bota zidaten gainera esan nuelako Kataluniako prozesuak inbidia ematen zidala, han gizarteak gertutik zaintzen dituelako ardura-dun politikoak. Estatuak gure erabaki eskubidea onar dezan, gizartearen mobilizazioa ezinbestekoa



da eta, gainera, oso mobilizazio indartsua, batez ere ildo orokorretan bidea markatu dezan. Gure esku dago bezalakoak ez lirateke sartu behar zehaztasun handietan. Horri beldurrez heltzen badiogu, prozesua bera ahultzen ariko gara.

M. Beitialarrangoitia: Aukera da baina presioa ere bai. Eta ez nuke presioa modu txarrean ikusiko, azkenean gehiengo sozial indartsuak ahalbidetuko baitu herri honek urratsak ematea bere etorkizunaren jabe izateko. Era horretan herritarrak sentitzen du bere zeregina oso garrantzitsua dela, baduela eraginik eta behin hortaz jabetuta, gizarteak posible egingo ditu prozesua eta finkatutako helburuak.

Gatazka baten herentzia ere hor dugu eta oraindik ez da lortu berau modu ordenatuan eramatea. Nola eragiten du horrek autogobernuaren prozesu berri honetan?

M. Beitialarrangoitia. Estatua jokatzeko ari den bezala, harentzat gatazkaren ingurukoak zenbat eta gehiago iraun, arazo politikoa gero eta gehiago luzatuko da. Tematua

M. Olano: “Estatuak gure erabaki eskubidea onar dezan, gizartearen mobilizazioa ezinbestekoa da eta, gainera, oso mobilizazio indartsua, batez ere ildo orokorretan bidea markatu dezan”.

dago bat blokeatzen, pentsatuz horrela bestea ere blokeatu edo zailtzen dela, eta batez ere ezker abertzalean pentsatuz, tartean presoak daudelako. Gure ustez bi bideak urratu behar dira aldi berean. Bi karriletan ditugu gehiengoak Euskal Herrian eta bietan eman behar ditugu urratsak.

M. Olano. Azkenean arduradun nagusiak bi estatuak dira. Bake prozesuak bere bidea behar luke, baina estatuek, ez parte-hartzeaz gain, berau oztopatu egiten dute. Rajoy-ren [Mariano] kezka ez da hainbeste zer gertatuko den Euskal Herrian, Espainian baizik. Bere inter-

eres politikoa da lehen mailan dagoena eta ez bake prozesu bat aurrera ateratzea. Bake prozesuaren ikuspegitik bi gauza egin behar ditugu: batetik, sufrimenduari dagokion guztia gaintu eta, bestetik, denek ikasi beharko genuke ez dagoela pertsonaren duintasunaren eta bere eskubideen gainetik dagoen helburu politikorik. Hori onartzeko eta adosteko aukera baldin badugu, horrek urrats inportantea ekarriko luke. ■



Euskara biziberritzeko ahaleaginean

Erauntsiak alimaleko desmasiak egin zituen Nafarroa Beherean, uztailaren 4an. Ura goiko eskualdeetan abiatu eta beheko Amikuze eskualderaino iritsi zen. Ura nola “eskuara” hala Amikuzen, zirimolatsu. Euriak euri, Zabalik elkarteko Jean-Mixel Puxulu presidentea eta Mattin Irigoien idazkaria gure zain genituen, Donapaleuko euskara elkartearen aterpean.

| MIKEL ASURMENDI |

NAFARROA BEHEREKO sei eskualde-tarik bat da Amikuze. 27 herriz osatua, 9.000 biztanle ditu. Donapaleu da herri nagusia 1.700 jenderekin. Zuberoa eta Biarno lurraldeak ditu mugakide. Iparraldeko eskualde ipartarrena da, eta euskara, naski, lurraldeko ahulena. Ahulena izatearen arrazoiak geografiari egotzi geniezazkioke, baina hori begirada sinpleegia litzateke.

Zabalik elkartearen sorrera

Zabalik Euskara Elkartea azken 40 urteko historiari lotuta dago. Frantziskotarrek ospe handia ukan zuten Donapaleun. Elkartea, nolabait erranik, 1983an hasi zen enamuntzen, frantziskotarren etxean: “Frantziskotarrak ez ziren ontsa ikusiak hemen, batzuk apaiz ezkertiarak eta euskaltzaleak ziren, eta besteak, eliza ofizialekoak, itxiak. Batzuentzat ospe ona zuten eta ez hain ona besterentzat. Apaizetxe harrera gunea zen erromes eta elkarte sindikal zein politikoentzat”. Manex Erdozaintzi-Etxart ibarlarra zen frantziskotar haietako bat. Idazle eta poeta ezaguna. 50 urterekin hil zen, gazte. 1994an omenaldia egin zioten, baita Manex Gogoan taldea sortu ere.

2006an, Manex Gogoan taldeko lagunak eta Zabalik frantziskotarretatik kanporatuak izan ziren. Frantziskotarren nagusiek Herriko Etxeari egoitza saldu zioten eta elkarteak lokalik gabe geratu zen: “Alegia, ez zaituztegu kanporatzen, baina kan-



Donapaleuko Libertimendua da gazteria euskaraz biltzen duen ekitaldi nagusia.

poan geratzen zarete. Aterperik gabe, arratoiak bezala kasatu gintuzten”. Herriko Etxeak lokal bat uzten ahal zion elkarteari, baina ez zuen lagundu: “Manex Gogoan taldearen funtzio nagusia euskara atxikitzea zen. Euskara zen gure enbrioia. Noraezean geratu ginen, lokalik gabe, baina behar horretatik gogoeta bat planteatu zen; 2008an eratzen hasi eta 2012an gorpuztu zena. Biltzar Nagusia egin genuen. Estatutu berriak onartu ziren eta Zabalik Euskara Taldea ofizialki sortu. Otsail Ostegunak kultur hilabetea da gure ekimen ezagunena. Lau astetan gai

bereziez mintzatzen da euskara hutsez”. Frantziskotarren etxea aterpe berezia izan zen, Donapaleun atea irekitzen zuen etxe bakarra. Gaur egun ez dago halakorik, Zabalik elkartekoek ez dute berezko lokalik. Herriko Mediatekako gela batean biltzen dira.

Badea norbait?

Zabalik elkarteak *Badea norbait?* izeneko aldizkaria zabaldu zuen eskualdean 2011n. Galdera inposatzen da: “Arraposturik bai?”. Erantzuna: “Norbait bada beti, baina ez dakigu zehazki neurtzen. *Badea norbait?* itsa-

«Euskararen haustura are bortitzagoa izan zen hemen»

AMIKUZE ETA DONAPALEUKO historia ikasi dugu amiñi bat Puxulu eta Irigoienekin: “Euskararen egoera antzekoa da Baxenabarre osoan. Alta, eskualdetik eskualdera, euskararen osasuna ez da bera. Eskualde bakoitzaren historiak eragin du horretan. Donapaleun presondegia izan zen. Nafarroako Gorteak Auzitegia zuen hemen. Funtzionarioen hiria izan zen. XX. mendean pertsona bat zinez inportantea izan zen gure historian: Martin Minvielle. Parisko antzina-ko Ospitaleko barneko medikua. 1935ean Amikuzera itzuli zen, eta

1939an *Puerikulturari buruzko tratatua* liburuxka idatzi zuen: “Elika-gaiak zirela-eta haurrak usu eritzen ziren, eta aise hil ere. Minvielle medikuak familiako amei puerikulturaren funtsa esplikatu zien, garbitasunaren beharra. Eta liburuxka euskaraz izkiriatu zuen. Euskaraz idatzia izateak garrantzia ukan zuen. Minvielle pertsona ikasia zenez, euskaraz aritzea mugari seinalatua da Amikuzen. Euskarak ez baitu inoiz atxikimendurik ukan, ez eskolan ez administrazioan.

Donapaleu 1960ko hamarraldian hiri burgesa zen. Alabaina,

lurren jabe handien garaia bukatzen hasi zen. Ordura arte, etxezain laborariek —maizterrek— beren ekoizpenaren hirutarik bi edo erdia jabea eman behar zieten. Alegia, maizterrak urte bateko lanaldiaren ondoren legez kanporatuak izan zitezkeen. 1970etik aitzina legeak aldatu ziren. Legeak lurra lantzen zuena babesten zuen jabea baino gehiago. Ekoizpena menderatu zen eta laborariak jabea-ri eman beharrekoa hektareen arau ematen zion. Burgesia “pobretzen” hasi zen nolabait, legeak berak lagundurik. Jauntxoak frantsesez bizi ziren eta pobreak euskaraz. Euskara klase apalen eta txiroen mintzaira izan da eta frantses hizkuntza eta hiztunak prestigioa dutenak. Garai hartan, halaber, Lur Berri kooperatiba sortu zen Amikuzen. Modernitatea ekarri zuen, baina horrek ere frantses munduan ditu erroak. Amikuzeko laboraria ez da Oztibarre, Garazi edo Baigorrikoa bezalakoa. Lehenago izan zen frantsesetua, euskararen haustura are bortitzagoa izan zen hemengo euskal familietan”.



Zabalik euskara elkarteko Irigoien idazkaria eta Puxulu presidentea.

sora mezu-botila botatzea bezala da, erantzuna noiz jinen den beha zaude”. Baxenabarren %52 euskaldunak dira, inkesten arabera. Baina datu horiek interpretagarriak omen dira. Solaskideen ustez aise gutxiago dira. Egoera berdintsua da Amikuzen, baina eskualde honetan euskara are zokoratuago dago: “Aitatxi-amatxiek badakite, baina 50 urteen ingurukoek, jakinik ere, ez dute erabiltzen. Adin horretan hautsi zen transmisioa, eta horien ondorengoak ez dute euskararen enbeiarik. Belaunaldi hark euskara baztertu zuen, euskara iragane-ko gauza ikusten dute egun”. Euskaldun multzo berria badago: ikastolako haurrak. Gutxiengoa da, alta. 1971an zabaldu zen ikastola. Eskualdeko ikasleak %9 eskolatzen du. Puxuluk honela ebatzi du: “Euskarak militanteen afera da. Herritar gehienek abertzaletasuna eta politika lotzen dituzte,

ez dute euskara politikatik landa ikusten. Hemen euskaraz egitea politika egitea da. Ez dute onartzen euskararen defentsa egin daitekeela abertzale izan gabe”.

Ikastoletako belaunaldi berria euskaraz bizitzen laguntzen du Zabalik-ek. Otsail Ostegunak zikloaren barnean, kooperatibismoa, hondakinen tratamendua, gatazka politikoaren ondorioak, globalizazioa edo altermundializazioa landu ditu elkarteak. Ihauterietan Kitzikazank taldeak Libertimendua antolatzen du, elkarte eta taldea elkarlanean ari dira. Antzerki herrikoi hori jende asko biltzen du. Otsail Ostegunak ekimene-tan 60 lagun inguru biltzen dira: “Hori da gure neurria. Gaurko desafioa gazte berriak gure ingurura ekarraztea da, festa egokia da horretarako. Libertimenduan gazteek tokiko gaiak eta gai minberak jokatzen dituz-

te, zirtzilen eta bestelako pertsonaien roletan. Libertimendua eta Otsail Ostegunak ekimen onak dira. Ikastola, Gau Eskola eta kultur taldeak euskararen inguruan biltzen dira”.

Elkarteak formakuntzan ezarri du indarra orain, *Tallers per la Llengua*-ren (TELP) ildoan. Hizkuntza gatazka gisan bizi direnen jokamoldea egokitzen ikasteko: “Nola egin lehenengo hitza euskaraz? Hori norberaren psikologiari lotua da. Maiatzean hamar lagun bildu ginen *Xamarrekin* [Juan Carlos Etxegoien hizkuntzalari], *Txepetx*en teoriaren inguruan aritu ginen. Gero, talde horrek lagun multzo zabalago bati erakusten dio jendearengana euskaraz hurbiltzeko moldeak, nolabait”.

“Amiñi bat amiñi bi, euskaraz bizi giten bizi” dio Amikuzeko euskaltzaleen lemak. ■



Argia ezagutzeko festa, oso gure erakoa

Euskaltzaleak, ARGIAko irakurleak, langileak, kolaboratzaileak, harpidedunak, blogariak, sare sozialetako jarraitzaileak... azken finean, ARGIAren inguruan batzen garen komunitatea elkar ezagutu eta egun eder bat pasatzeko aukera emango digu aurten berreskuratuko dugun

ARGIA Egunak. Gure balioetan oinarritutako festa mimo handiz ari gara prestatzen (ingurumenarekiko errespetua, parekidetasuna, independentzia, lurraldetasuna, euskara eta parte-hartzea). Egunaren barruan, Argiazaleon topaketan astekarirako lantzen ari garen aldaketak azalduko ditugu eta zuen ekarpenak eta iritziak jasoko.

ARGIA EZAGUTU NAHI DUZULA?
Halako gairi buruz idazten duenarekin gustura solastuko zenukeela, gogoan duzula ARGIA agertzea merezi lukeen gai edo pertsonarik, zure interes berak dituen jendearekin egon nahi duzula, edo zer arraio, bizitza honetan dena ospatu beharra dagoela... badugu ARGIA Eguna egiteko motiborik. Gertuko harremanak bultzatuz, ARGIA proiektuarekiko ideiak trukatu ditzagula eta “oso gure erako festa” izan dadila, horixe dugu ilusio. “Zenbat biltzen garen” bost axola, “nola egongo garen, elkarrekin zer egun pasako dugun” horri begira gaude.

Usurbilen, non bestela

Memoria luzeena duzuenek gogoratuko duzue ARGIA Eguna izan zela 1982-1992ra artean: herritarren sareak antolatuta, herriz herri harpidetza egiteko jartzen ziren mahaiak ekarriko dizkizute gogora.

Beste molde batean, orduko txinparta piztuko du aurtengo egunak. Usurbilgo ARGIAren Lagunak taldeari esker onez, hasieratik argi izan dugu festa non egin. Herritar talde hau, proiektua ekonomikoki laguntzeko sortu zen 1998an. Ekonomikoki estuen egon garenetan lagundu izan digu

herritarren babesak jasotzen eta egun ere urtero antolatzen du Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen emanaldia abenduan.

Hasi haziak biltzen

Irailean jasoko duzu egitarau zehatzaren berri. Ekitaldiak prestatzerakoan ere gure balioak islatzen saiatu

gara. Egunaren hezurduran, aurrera dezakegu goizez Euskal Herriaren independentziari buruzko mahai-inguru berezia izango dela, eta guztion artean Nendo Dango-ak (haziz betetako buztin bolatxoak) egingo ditugula ondoren desertifikatutako eremu batean jaurtitzeko. Has zaitetzke, beraz, inbaditzaileak ez diren landareen haziak bildu eta lehortzen. Bazkalostean ez da umorerik faltako eta arratsaldeko bertso saioaren ondoren musikak hartuko du gaua.

Bazkaritarako aukerak

Norberak etxetik ekarritako janaria jateko lekua atonduko dugu eta bertan bokadilloak erosteko aukera ere izango duzue. Herri bazkarirako lekua erreserbatzeko, berri, deitu (943 37 15 45) edo idatzi (sustapena@argia.com) irailaren 17a baino lehen.

Zure ideiak eta lana ongi-etorriak dira

ARGIA Egunean ekintzaren bat antolatu nahi baduzu, bidali proposamenak aurreko helbidera. Lanerako borondatez bazaude, aureskua dantzatzuz egingo dizugu ongi-etorria (zehaztu zer ordutegitan eta zer lan klasetan jardungo zenukeen). ■



Argiazaleon topaketa

Argia Egunean bilduko garela baliatu nahi dugu proiektuaren inguruko ideiak zuzenean trukatu ditzagun guztion artean: langile, kolaboratzaile, harpidedun eta irakurleok. Lagun giroan egingo dugu eta lekua eta ordua zehaztuko dugu egitarauarekin batera.

Hilabeteak daramatzagu urte bukararako astekarian egin nahi genituzkeen aldaketak lantzen. Topaketa honetan, eskuartearen darabilgun planteamendua azaldu ostean, zuen ikuspegiak eta proposamenak jasotzeak izugarri aberastu dezakete emaitza.

Aldi berean, ARGIArekin inplikaturako jendea martxan jarri nahi dugu herriz herri jositako sarean (ikusiko zenuen lan deialdia horrekin lotua da). Udazkenean ekingo diogu lan horri eta abiatzeko ezinbestekoa zaigu zure hitza: nola parte hartu nahi du harpidedunak ARGIA proiektuan?

Ertzaintzak lehen aldiz Euskararen Erabilera Plana izango du

2015EAN abiatuko du plana Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eta 2019ra arte iraungo du. Helburu nagusia euskal herritarrei zerbitzu elebiduna eskaintzea da. Xedea lortzeko hainbat neurri aurreikusi ditu Segurtasun Sailak: euskalduntzeko urteko aurrekontua handiagotzea (2015ean bikoiztea nahi du); euskara ikasten arituko diren ertzainak urtean 80-100 bat izatea (gaur egun 25 dira) eta plan zehatz bat sortzea agenteak lana euskaraz egiteko gai izan daitezen.

Lehentasuna izango duten polizia unitateak eta ertzainetxeak bi irizpideren arabera aukeratu dituzte: batetik, herritarrekin duten harreman mailaren arabera, eta bestetik, inguru soziolinguistikoaren arabera.



Gaur egun 2.652 ertzainek PL1 maila dute (Europako C1 maila) eta 171 ertzainek PL2 (Europako C1).

Segurtasun Sailak adierazi duenez, “orain dela gutxira arte eta urte askoz, Ertzaintzaren oinarritzko lehentasuna euskal biztanleen bizitza, eskubideak eta oinarritzko askatasunak zaintzea izan da. Orain, etorkizuneko Ertzaintzak hurbileko polizia-zerbitzua eskaini behar du”.

Bahea

Iñaki Petxarromanek Berrian esanak:

“Zer herrialde mota da hau, bertako Poliziak ez badu bertako hizkuntza erabili nahi?”, kexatu zen Jordi Pujol Kataluniako presidentea ohia 2012an. Mossoek egun batzuk lehenago iragarri zuten, murrizketen aurkako protesta gisa, gaztelania erabiliko zutela euren harremanetan, nahiz eta, kritiken ondorioz, atzera bota zuten asmo hori azkenean.

Jordi Pujol eta Artur Mas behin baino gehiagotan azaldu dira kezkatuta mossoak gaztelaniaz mintzatzen zaizkielako herritarrei.

Ertzaintzak ez du halako presiorik izan agintariengandik. Gaztelaniaz jardun dira, politikariekin harmonia osoan. Orain «hurbileko polizia» bihurtu nahi dute, eta, horretarako, «herritarrek nahi duen hizkuntzan aritzeko gai» izan behar dute agenteek. Orain arte beste lan batzuetan ibili dira, «biztanleen bizitza, eskubideak eta oinarritzko askatasunak» zaintzen, Beltran de Heredia Herrizaingo sailburuak adierazi duenez.

32 urteren ondoren ohartu da Jaurlaritzak euskarazko arreta eskaintzea ere badela Poliziaren zeregina. Zer herrialde mota da hau?”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Emigratzera behartuak?

ORAINTSU ARTE batez ere Ipar Euskal Herriko biztanleek emigratu izan dute, ezin izan dutelako beren herrian lanik egin. Hala, Iparraldeko hainbat eskualdetako gazteria izan da zigortuena; bizimodua ateratzeko esperantzarik gabe egin dute ospa Parisera edo Amerikara. Orain, krisi kapitalistaren ondorioak Hego Euskal Herrian ere nozitzen ari dira. Emigratzeko txanda iritsi zaie mugaz beste aldeko herritarrei, bereziki gazteei.

Hori ondorioztatu daiteke Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak (CES) joan den astean argitaraturiko txosten batetik. EAEko 64.000 haur pobrezian edo ongizaterik gabeko egoeran daude, biztanle guztien %23a. Pobrezia erasandako hamar lagunetik seik 35 urtetik behera dute eta “hamar pobrezia kasutik bederatzitan familia buruak ez du ikasketa kualifikaturik”. Lana duten gazteak, berriz, prekarietatean ari dira. Zer etorkizun espero dezake euskal gazterik? Politika ekonomiko kapitalista basatietan aldaketa sakonik ez badago, gure gazte-

riaren etorkizuna pobrezian bizitzea izango da, orain arte bezala. Ondorioz, gazte ugari emigratzera beste erremediorik ez dute izango, biziraungo badute. XX. mendean halaxe gertatu zen, askok eta askok Amerikara eta Europako beste tokietara emigratu behar izan zuten.

Administrazio publikoek, alderdiek, sindikatuek eta eragile sozialek erantzukizuna dute honetan guztian. Larrialdi egoeraren aurrean akordio handia behar da, kalitatezko enplegua lortu eta aberastasuna hobeto banatzeko. Horrela baino ez dugu eragotziko gazteek emigratzera. Gazterik gabe Euskal Herria ez da biziko; ez dago etorkizunik haiek gabe. Euskal herritarrok gure etxean bizi nahi dugu duintasunez. Eta solidarioak izaten segi nahi dugu beste herri batzuetatik hona etorri behar izan dutenekin ere.



Juan Mari Arregi

«Salba dezagun Nicole Delepine onkologoa»

Parisko Garches klinika publikoak zabalik jarrai dezan borrokan ari dira bertan artatzen dituzten haurren gurasoak, Nicole Delepine onkologoaren zuzendaritzapean osatutako 30 urteko esperientzia eten ez dadin. Kantzerraren kontrako balizko gerran jokoan dauden interesak salatuz, terapia hautatzeko eskubidea aldarrikatzen dute.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HAMABOST EGUNEKO BARAUALDIA burutu dute, ekainaren 26an hasita, minbizia daukaten lau haurren gurasoek Parisen. Poliziak indarrez atera dituen arren Raymond Poincaré ospitaleko kaperatik, protesta ekitaldiak ez dituzte baretu. Ospitale horren atal txikia den Garches klinika bere giza taldearekin zabalik edukitzea eskatzen dute. Beren ekintzarekin hedabideen mahai gainean ezarri dute delako kantzerraren kontrako gerra famatuaren gaineko eztabaida.

Garches klinika esatea Frantziako Estatuan Nicole Delepine mediku pediatria onkologoa esatea da. Nicole eta bere senar Gerard zirujaua ezagunak dira onkologo oso kritikoak direlako osasun sistemak minbiziaren kontrako estrategian azken hamarkadotan hartu duen bidearekiko. Ez bata eta ez bestea dira “alternatiboak”, urrik eman ere, kimioterapia ere erabiltzen dute, baina urteotan merkaturatu eta kantzerrerarako orokortu diren terapia berrietako asko ez dituzte onartzen, beren ustez emaitzarik erakutsi ez dutelako eta orain artean gaixoei mesede baino kalte gehiago eragin dielako.

Haurren minbizietarako sortu zuten Garches klinika 1980ko hamarkadan eta 1998tik egon da Nicole Delepine ekipoko zuzendari. Bereziki tumore solidoak zeuzkaten

haur eta gaztetxoak artatzeko enkar-gua zeukaten, garaiko kantzerrerologo frantses famatuaren bultzadaz.

Delepine oroitzen da garai hartan hezurretako kantzerra zeukaten umeek bost urteren buruan bizirik jarraitzeko %40ko itxaropena zeukatela. Orduan jakin zuten AEBetan Gerald Rosen onkologoak %80ko arrakasta lortzen zuela eta haren tratamenduak Parisen erabiltzen hasi ziren.

Medikuntzako gaiez ikerlan interesgarriak eskaintzen dituen *Enquêtes de santé* aldizkariari aurtengo otsailean Delepinek aitortu zion: “Guk hemen aplikatu genuen Rosenek AEBetan egin eta erakutsitakoa, hemengo zenbait kolegak dudatan jartzen zuten arren sistema. Orduan bihurtu ginen artaldeko ardi beltzak, nahiz eta ez ginen berehalakoan ohartu”.

Onkologiako korronte nagusiaren kontra zihoazen, ordea, eta laster nozitu zituzten ondorioak. Hasteko, ospitale baten egoitzatik beste batenera aldatu zuten Garches klinika. Aurrekontuen negoziaketak konplikatu ziren, langile murrizketak. Ordainetan, beren haurrekin lan ona egiten zutela uste zuten gurasoek Garches bizirik atxikitze-ko Ametist elkarteak sortu zuten.

Ametisteko kideak eta ingurukoak izan dira ekainean mobilizatu

Ametist elkartearen blogeko argazkian, Parisko Raymond Poincaré ospitaleko kaperan gose greban egon direnak, eskuinetik hasita Lisbeth, Lucette, Isabelle eta Charles. Hiru haur gaixoen gurasoak dira, Lucette beste baten 69 urteko amatxi: “Hiltzea nahiago dut gure txikia helduen zozokeriagatik hiltzen ikustea baino”, deklaratu dio *L'Éclair* egunkariari. Atzean gurasoen artean eta besoetan haur minbizidunetako batzuk. Guraso batzuek salatu dute haurren zaintza galtzeko zorian egon direla osasungintza publikoak ezarri nahi zien terapia esperimentala ez onartzeagatik. Irudi txikiak da Nicole Delepine onkologia pediatrikoan ari den mediku ezaguna. Mendebaldeko medizina klasikoa erabiltzen du, ez batere alternatiboa, kimioterapia ere usatzen du, baina ez du onartzen gaixoak sartzea farmaziako multinazionalak sustatzen dituzten botika berrien esperimentazio programetan.

direnak, uneotan kantzerra daukaten haurren gurasoak, han artaturik sendatu duten beste batzuenak, baita Garchesen salbatzea lortu ez duten hildako haur batzuen gurasoak ere. Ez dute onartzen Delepine erretretako adinera iritsi dela baliatuz osasun ministro Marisol Tourainek klinika itxi eta gaixoak bezala langileak beste klinika eta zerbitzuetan sakabanatzerik.

Gaixo minbizidunak, ez akuriak

Nicole Delepineren ibilbidea eta pentsaera laburbildu daiteke plaza-ratu dituen liburuen tituluetan.

Neuf petits lits au fond du couloir ou le combat d'un médecin hospitalier (Bederatzi ohe txiki pasilloaren amaieran edo ospitaleko mediku baten borroka). Garches zabalik atxikitze borrokaren inguruan hedabideek elkarriketatuta dituzten haur gaixo eta hauen gurasoek azpimarratu dute doktorearen jendetasuna, emakume eta amatasuna ere bai, profesionalaren gaixoei eskuzabaltasun osoa.

Ma liberté de soigner pour la médecine, contre la pensée unique (Gaixoak artatzeko nire askatasuna, pentsamendu bakarraren kontra). Osasun sisteman gaixoak nola sendatu ez dutela gaur medikuek erabakitzen, nor berak ikusi eta ikasi dituen artean gaixo bakoitzari



“Ez dut onartzen gaixoa sartzea sendatzeko %50 baino gehiagoko aukerak ematen ez dizkion saiakera terapeutiko batean. Saiakerok definizioz gaixo guztiei berdin aplikatzen zaizkie. Ez dute baimentzen haur bakoitzari bere dosi zehatza egokitzea. Saiakera horiek gehiengotik estandar berdinez gain molekula izugarri garestiak proposatzen dituzte (farmaziako industria eta mediku konplizeak aberasten dituztenak), nahiz eta beren eraginkortasuna frogatu gabe egon. Etika eta filosofia kontua da”.

Haurrak ez dituela akuriak bezala tratatuko errepikatzen du Delepinek. Beregan dakartzaten gurasoen haurrek badakitela aurrera ateratzeko zenbat aukera dituzten tratamendu pertsonalizatu batekin eta, aldiz, hainbeste haizatzen diren botika esperimentalek emaitza askoz okerragoak dauzkatala lehenetik ondo ezagutzen diren kimio klasikoekin baino.

Asterix txiki bat bezala geratu da borrokan. Mediki klasiko baina hereje. Doktore are herejago batek, Donostian ari den Didier Moulinier kancerologo frantsesak, bere blogean ipini du “*Il faut sauver le soldat Nicole Delepine!*”, Ryan izeneko soldadu hura salbatzea eskatzen zuen filmaren titulua baliatuz.

Gurean ere saiakera kliniko gehiago, mamografia gehiago, Anti-TNF gehiago eskatzen duten herriarrek hurrengo kanpainara konbidatu beharko lukete Delepine: kantzeraren kontrako gerraren beste alde iluna azalduz kezkatu gaitzan. ■



ezarri beharreko tratamenduak hautatuz, farmaziako multinazionalen aginduak betetzen dituen burokraziak baino.

La face cachée des médicaments (Botiken alde ezkutua). Delepinek azaltzen du zer dagoen azken hamarkadotan Mendebalde aberatsko osasun sistemen barruan ustez onak ziren eta denborarekin arras kaltegarriak zirela erakutsi duten hainbat botikaren eskandaluarekin, zergatik huts egin duten erakunde publikoen kontrolek.

Le cancer, un fléau qui rapporte (Minbizia, dirua ematen duen izurrite hori). Frantziako Estatuan bertan, ia bi bilioi euro 2009-2014ko planarentzako. Finantzako erraldoiak, medikuntzako lobbyak eta farma-

ziako industria elkartu eta kantzeraren kontrako borroka den merkaturaren osorik berenganatzeko zorian daude. Agintari politikoek esku batekin opari hori egiten diete, eta bestearekin herritar guztiak zerbitzatzen dituen osasun sistema publikoa kimatuz doaz. Frantziako Aseguru Sozialen sortzaileetako baten alaba izaki, doktoreak badaki zertaz ari den.

Baina Garcheseko klinikari zintzurra ez diote ebaki nahi bere zuzendariak horrelako salaketak egiten dituelako –liburu eskandalagarriak mila argitaratzen dira urtero– bere praktika terapeutikoagatik baizik. Delepinen ekipoak uko egiten die onkologian urteotan nagusitu diren terapia esperimentalei.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com





Bake prozesua eta gizartearen bultzada

ETA-K iragan asteburuan atera duen agiriak berriz jarri du bake prozesua euskal politikaren agendaren lehen lerroetan eta, funtsean, berak berau elikatzeke egingdako urratsen berri eman dio euskal gizarteari. Non zegoen prozesu hori iritzi publikoari begira? ETAk otsailean egin zuen armen indargabetzeari buruzko taularatzeari. Sinbolikoki urrats handia izan zen, baina prozesuaren izaera aldebakarrekoa inoiz baino argiago azaleratu zen: armak entregatu nahi eta Estatuari bost axola. Estatuaren aparatuek eta haien alderdiek ETArekin desegitea besterik ez zutela espero adierazi zuten hamaikagarrenez, orain egin duten gisan. EAJk amaiera ordenatuaren alde egiteko bere konpromisoa jarri zuen mahai gainean, baina gehiago espero zuela garbi adierazi zuen. Ezker abertzaleak ETArekin borondate argiaren agerle jarri zuen ekimen hura.

Bost hilabete geroago ETAk beste bi urrats txiki-handi —nondik eta nola begiratzen den arabera— eman ditu, borroka armaturako prestatutako egitura logistikoa eta operatiboa desegin dituela iragarri. Armen zigilatzea oraindik heldugabe dagoela iradokitzen du aldi berean, horretarako “egitura tekniko-logistikoa osatzen” ari dela iragartzen baitu.

ETArekin agiri heldu aurreko egunetan, halaber, Jonathan Powell eta Martin McGuinness izan dira Euskal Herrian, prozesuari bultzada berria emanez eta, seguruenik, agiriaren agerpenari sendotasuna eman nahian. Hori lortu dutela ez dago zalantzarik, gatazkaren gaia berriz agertu baita agenda politikoaren lehen lerroetan.

Eta, aldi berean, bake prozesuan diren hainbat gora-behera ere azaleratu dira, agerikoena EAJren zereginari dagokiona. Otsailean EAJ eta Urkullu lehendakaria desarmearen bultzadan lehen lerroan egon baziren, oraingoan ez da halakorik gertatu eta lehendakariak hartu ere ez ditu egin Powell eta McGuinness. Zer gertatu da?

EAJren lerroetatik adierazi da otsaileko armen argazkiaren ondoren, armak desegiteko prozesuan urrats handiagoak espero zituela. Engainatuak sentitu zirela iradoki da eta horregatik Urkullu ez dela bildu Powell-McGuinness ordezkartzearekin.

Diskrezioa ezinbestekoa da halako prozesuetan, baina are gehiago gizartearen parte-hartzea eta bultzada

BATEK DAKI prozesuan hariak mugitzen dituztenen arteko harremanez, baina edozein modutan, halakoetan ika-mikak ohikoak badira ere, ezinbestekoa da prozesuaren amaiera ordenatuan sinesten dutenen artean harreman horiek ahalik eta sendoenak izatea. Prozesuaren alde teknikoak bultzatzea bezain garrantzitsua da gizartearen bake prozesuaren garra ondo piztuta mantentzea, eta horretarako giltzarri dira bultzagileen arteko harreman ona eta bakearen sinboloak ondo gizaratzea. Alde horretatik, Powellen eta McGuinnessen bisitaldian ez da behar beste baliatu bikotearen irudi sinbolikoa eta gehiegi azpimarratu da Urkullu haiekin ez bildu izana. McGuinness eta

Powell bakea egin duten etsaien sinbolo dira, batak gobernu britainiarra ordezkatzeko du eta besteak IRA eta mugimendu errepublikar osoa. Horrek bazuen nahiko karga sinboliko haien irudia beste era batera gizaratatzeko eta bakegintzaren garra hobeto elikatzeke.

Euskal gizarteak argi eta garbi egin du ETArekin amaiera ordenatuaren alde, baina nahi hori behar bezala elikatzen ez bada, oso zuzenean inplikatuak ez dauden herritarrek gaiarekiko interesa gal dezakete, bereziki prozesu hau hain luzea denean. Batzuei akaso hori interesatuko zaie, baina amaiera ordenatuaren aldekoiei ez. Diskrezioa ezinbestekoa da

halako prozesuetan, baina are gehiago gizartearen parte-hartzea eta bultzada; eta zalantza handiak daude berau behar bezala aktibatzen ari den. Argi esateko, lehen urrats batean EAJ eta ezker abertzalearen arteko konfiantza eta harreman ona klabea da zeregin horretarako, eta bigarren batean PSOerena ere bai. PPren harresiaz hitz egiteak luzeago joko luke, bakarrik Espainiara begira dagoelako eta ez Euskal Herrira.

Gizartearen inplikazioa nahi bada, alde guztietatik hitz egin behar zaio argiago. ETAk ere bai, azken agirian zalantza asko barreiatu baititu. Behin borroka armatua utziz gero, ez da desagertzen eta listo? Zer izan nahi du etorkizunean? Ez al da logikoena desegitea? Present egon nahi badu, zertarako eta nola? Eta noiz arte? Azken agiriak, alde horretatik galdera ugari utzi ditu airean. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Lar zaldiak

Zaldi turismoa

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria
Urdaiaga Auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA

Tlf. 666 607 447
info@larzaldiak.com
www.larzaldiak.com

Koord. GPS:
43.266031, -2.067587

1



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN



Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2

STM
San Telmo Museoa



San Telmo Museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

3



EUREKA! zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

4

Bixente ARGIA



Bixente Ameztoy ARGIA azalak

1978. urtean Bixente Ameztoyk
Zeruko Argia aldizkarian egindako
36 azal laminatan inprimatuak

Lamina sorta
www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2422. Argia)

ATXASPI hotela

• Agustín Egaña Heras (Bilbo)

DONOSTIAKO AQUARIUM

• Ana Lobeiras Carlos Garaikoetxea (Berroeta)
• Gurutze Aiartzaguena Aranzibia (Zaldibar)
• Rafael Larrañaga Albizu (Azpeitia)
• Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)

OKATXU komikia

• Itziar García Blázquez (Oñati)

IRUÑEKO PLANETARIOA

• Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)
• Peli Goia Escudero (Hernani)
• Haritz Berasategi Bastarrika (Zumarraga)

GOZA DAITEKE GEHIAGO liburua

• Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)
• Miren Iturrioz Guiru (Andoain)
• Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)
• Jone Santamaria Azpiri (Donostia)
• Roberto Izagirre Barruetaña (Bergara)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com